



ttipi-ttapa



2015eko otsailaren 19a | XXXV. urtea | 632. zenbakia

www.ttipi.eus

Erreka Kirol Elkarte
2014ko klubik onena

Gehigarri berezia
Landareak → 22-23

IGANTZI → 15
Gladiator's Day proba
berezia Irisarri Landen

MALERREKA → 21
Saharako Errepublikaren
Eguna otsailaren 27an

BAZTAN → 28
Euskadiko rally txapelketa
irabazi dute bi baztandarrek

SENPERE → 33
Aurtengo Herri Urrats
Ziburuko ikastolaren alde

Jubilotokia Urdazubin



ERREPORTAJEA → 4-5

Ilusioak ez du adinik

Adineko jendearen eta hauen familiaren bizi-kalitatea mantendu edota hobetzeko asmoz, laugarren adinekoentzako jubiloteka zerbitzua ireki dute Urdazubin. Astean bizpahiru aldiz biltzen dira eta hiru orduko tarte atsegina pasatzen dute elkarrekin. Oraingoz 80 urtetik aitzinerako bortz emakumezko elkartzen dira Axun eta Amaia proiektuaren bultzatzaileekin eta baieztatu digutenez, «aski gustura daude».

Maite ARIZTEGI ETXEPETELEKU | Elizondoko Lanbide Eskolako zuzendaria

«Eraikin berri bat behar dugu instalazio eta ekipamenduekin osatua»

Eskualdeko Lanbide Heziketa euskalduna eta bateratua lortu eta formakuntza aukera guztiak eskaini nahi dituzte Elizondoko Lanbide Eskolan, baina horretarako eraikin berria behar dutela adierazi digu Maite Ariztegi zuzendariak. Eraikinaren barrenean zein kanpoaldean premia larriak dituztela gaineratu du.



ELKARRIZKETA → 3

ZUBIETA → 21

Eskola irekitzeko aukerari ezetz esan dio Gobernuak

Hasieran jarritako irizpideetako bat aldatu egin du Hezkuntza Departamentuak eta orain bost ikasle beharrean zortzi eskatzen ditu eskola irekitzeko.

ZOKKETAK → 44



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58 telefonora
edo idatzi info@ttipi.eus
helbidera

Administrazio publikoetatik kultur proiektuentzat bideratzen diren diru-laguntzak kasik desagertu diren honetan, Kultura Mezenasgoaren Foru Legea sartu berri da

indarrean Nafarroan. Oraingoz, 92 proiektu eta artistek lortu dute *gizarte-intereseko* deklaratuak izatea, eta horien artean dago TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK bultzatzen duen

aldizkari eta interneteko edizioa. Horrela bada, TTIPI-TTAPARI konparaziora 50€ko donazioa ematen dionari 40 € itzuliko zaizkio hurrengo errenta-aitorpenean, %80a.

MEKNA | Mezenasgoa Kultura Nafarroa

Ttipi-Ttapa laguntzen duten herritar eta enpresek onura fiskalak dituzte

ttipi-ttapa |

Gehienei arrotz eginen zaio *mezenas* hitza. Erromatarren garaiko *Cayo Cilnio Mecenas* agintariari egiten dio erreferentzia hitz horrek, garai hartan literatura eta kultura sustatzeagatik ospetsu egin zen pertsonari alegia. Gaur egun mezenasgoaz ari garenean, dirua, ondasunak eta eskubideak ordainik gabe emateaz ari gara. Ez da nahasi behar, hortaz, mezenasgoa eta publizitate salmenta.

Nafarroako Kultura Mezenasgoaren Foru Legeak aurreikusten dituen onura fiskalak proiektu zehatz bati aplikatu ahal izateko, lehenik Kultura Kontseiluak *gizarte-intereseko* proiektu deklaratu behar du aipatu egitasmoa (MEKNA proiektu izendatu). Urta-rrilaren 16ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da oraingoz onartuak dauden 92 egitasmoen zerrenda. Zerrenda horretan dago TTIPI-TTAPA ere.

Horiek horrela, aldizkaria hartzen duten harpidedunei aukera honen berri emateko komunikazio kanpaina abiatu du TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK, eta datozen aste eta hilebeteotan Baztan, Bertizarana, Malerreka, Leitza eta Urdaizubiko harpidedunei deituko zaie gauzak zehatz-mehatz azaltzeko.



Konparazio batera, TTIPI-TTAPARI 50 euroko laguntza ematen dionak 40 euro hartuko ditu bueltan hurrengo errenta-aitorpenean.

Bagoaz, bagozi, bagozi... TTIPI-TTAPA haziz!

Esaldi horrek laburbiltzen du kanpainaren ideia nagusia. Dagoeneko 35 urteko ibilbidea egin du TTIPI-TTAPAK herritarren hitzak lau haizetara zabalduz. Milaka etxetan sartu da paperean, telebistako leihotik edota ordainagailu eta gailu eramangarrien bitartez, eta aurrerantzean ere halaxe egin nahi luke, proiektu berriak abian jarriz eta euskarari arnasa emanaz. Herritarrek daude TTIPI-TTAPAREN oinarriaste eta etorkizunean ere herritarrek nahi ditu bi delagun.

Egia da inguruko udal gehienek diruz laguntzen dutela Fundazioa, baita

ONURA FISKALA

Partikularrentzat, egindako donazioaren %80 itzuliko zaio errenta-aitorpenean (lehen 150 euroetan), eta %40 kopuru handiagoko donazioetan.

MEKNA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Eusko Jaurlaritzak ere, baina 2011z geroztik Nafarroako Gobernuak diru-laguntzarik gabe utzi zituen euskaraz aritzen diren komunikabideak, TTIPI-TTAPA barne.

Orain, Nafarroako Parlamentuak Kultura Mezenasgoaren Foru Legea onartu ondotik eta Kultura Kontseiluak prozedura administratiboak burutu dituela, TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK aukera berri hau baliatu nahi du lege honek eskaintzen dituen abantailen berri herritarrei emateko. Hurrengo asteetan harpidedunek telefono deia hartuko dute TTIPI-TTAPATIK eta lankide batek honen inguruko xehetasun guztiak azalduko dizkie.

Zer da MEKNA?

Mezenasgoa Kultura Nafarroa hitzetatik sortutako akronimoa da MEKNA, eta izen hori erabiltzen da Nafarroan kultur mezenasgoari erreferentzia egiteko (gaztelaniaz MECNA).

Nolako onura fiskalak ditu TTIPI-TTAPA laguntzen duenak?

TTIPI-TTAPARI (*eta gizarte-intereseko proiektu* deklaratuak izan diren gainerako 91 egitasmoei berdin) laguntza ematen dion partikularren errenta-aitorpenean itzuliko zaio eman duen kopuruaren %80a lehen 150 euroetan eta %40 gainerakoan, betiere helbide fiskala Nafarroan baldin badute.

Konparazio batera, TTIPI-TTAPARENTZAT 50 euroko laguntza eman duenak 40 euro hartuko ditu bueltan.

Nafarroako enpresek ere badute onura sozietateen gaineko zergaren oinarrian: %30eko kenkaria lehen 300 euroetan eta %20 hortik gorako kopuruetan.

Informazio gehiago:

www.mecna.navarra.es webgunean aurki daiteke gai honen inguruko informazio zehatza, berdin TTIPI-TTAPARA deituz **948635458** telefonon edota nahiago bada **bagoaz@ttipi.eu** posta elektronikora idatzita.

Segurtasun eta babes neurriez ingurutatua egon arren, normaltasunari eutsi diote Elizondoko Lanbide Eskolan. Urteak zeramatzaten eraikinaren egoera kaxkarrarekin

kezkaturata eta ekainaren 30ean teilatu zatia erori zenenean «alarmak piztu» eta badirudi orain «Hezkuntza Departamentuak serio hartu» duela gaia. Jomuga behin behineko

neurrietatik haratago jarri dutela azaldu digu Maite Ariztegi zuzendariak «eskualdeko premiak asetuko dituen Lanbide Heziketa eskaini nahi dugulako».

Maite ARIZTEGI ETXEPETELEKU | Elizondoko Lanbide Eskolako Zuzendaria

«Eskualdeko eskaintza bateratuko duen ikastetxe integratua behar da»

E. IRAOLA | ELIZONDO

Zein da une honetan duzuen egoera?

Erori zen teilatu zatia kurtsua hasi baino lehen konpondu bazen ere, eraikinaren barru zein kanpoaldean premia larriak ditugu. Eskolak kanpotik itxura erabat zaharkitua eta utzia du. Segurtasun babes neurriak jarrita daude, erlaintzak apuntalatu eta inguru guztia aldamiotz inguratua eta itxia. Estu gabiltza klaseak emateko espazio mugatua dugulako, gela bat galdu dugu eta beheitiko komunak ere itxiak daude. Eta ikastetxe barranean, berogailu sistema, elektrizitate instalazioa eta gelen itxura ere hagitz kaltetuak daude.

Noiz hasi zen egoera okertzen?

Egoera beti kezkgarria izan da eta urtero-urtero Hezkuntzari mantenu eta konponketak egitea eskatu izan diogun arren, beti diru eskasia zela eta atzera bota dituzte gure eskaerak. Itxasura asko zeuden eta teilatua konpontzeko behar handia. Ez zen languntzik iristen, baina ekainaren 30ean teilatu puska bat erori eta horren ondorioz txosten tekniko batek teilatuaren arrisku-egoera agerian utzi zuenean, alarmak piztu ziren eta Hezkuntzak serio hartu zuen gaia. **Zein pauso eman dituzue irtenbide bila?**



UTZITAKO ARGAZKIA

Maite Ariztegi Elizondoko Lanbide Eskolako zuzendaria da 2012az geroztik.

Egia erran, jo litezkeen ate guztiak jo ditugu. Hezkuntzakoekin maiz bildu gara, baita Baztango Udalarekin ere eta obra kontuetan gainean egon gara. Urtarrilaren 8an Parlamentuko irakaskuntza komisioko kideak eskolara gonbidatu genituen egoera bertatik bertara ikus zezaten. Lan saioak eta bilerak ere egin ditugu ikastetxe, udal, enpresako 3 sektoreta-ko ordezkari, gizarte zerbitzu eta Hezkuntzako ordezkariekin eta foro desberdinetan ere parte hartu dugu.

Eta zer ondorioztatu duzue?

Argi eta garbi dugu gure xedea eskualdean Lanbide Heziketa eskainiko

ESKARI NAGUSIA

«Eskualdeko Lanbide Heziketa euskalduna, bateratua lortu eta formakuntza aukera guztiak eskaintzea litzateke helburua. Hau da, eskaintza formala (goizekoa) eta eskaintza ez formala (arratsaldean langabetu eta langileei zuzendua) eta akreditazio aukerak ere eskainiko lituzkeena. Horretarako eraikin berri bat behar dugu instalazio eta ekipamenduekin osatua.»

duen ikastetxe integratu bat lortzea dela. Bertan, eskualdeko eskaintza bateratu eta formakuntza aukera guztiak eskaintzea litzateke helburua. Hau da, eskaintza-formala (goizekoa) eta eskaintza-ez formala (arratsaldean langabetu eta langileei zuzendua) eta akreditazio aukerak ere eskainiko lituzkeena. Horretarako eraikin berri bat behar dugu, beharrezkoak diren instalazio eta ekipamenduekin osatua. **Eskaintza eguneratzeko premia ere bada?** Krisiarekin batera jendearen beharrak are gehiago zehaztu dira eta guk ere nabaritu dugu. Orain gizarteak hezkuntza ere kontuan hartzen du eta

jendeak jakin nahi du hemen zein lanbide ikasi daitezkeen eta zein aukerak dauden lanbide eta behar berriei erantzuteko. Guk ere irekitzeko aukera izan dugu, foroetan parte-hartze aktiboan izanda. Eskualdean Lanbide Heziketa egokitzeko beharra dagoela nabaritu dugu eta Hezkuntzak ere eskaintzen duen formakuntza aztertu eta berri nahi izateak horretarako bidea ematen du. **Nola ikusten duzue etorkizuna?**

Etorkizuna erabat aldatu eta aukera bezala hartzea hobe. Nahiak eta beharrak aski garbi daude, jendea Lanbide Heziketaren inguruan gauzak hobetzeko gogotsu eta aktibo dago. Alde batetakoak eta bertetakoak elkartu gara eta solastu dugu, hau da lehen pausoa da. Momentu politiko nahiko mugitua eta aldaketak ekar ditzakeena ireki da orain Nafarroan eta ondorioz, orain Hezkuntzan audenak ezin direla konprometitu erraten digute behin eta berriz. Kezkagarria da hori. Argi dago ordea, alde guztiek bat egiten dugula, denok ados gaudela ikastetxe integratu bat izateko premia aipatzerakoan. Aukera guztiak daude datozten urteetan eskari hau egia bihurtzeko, guztiok aktiboki inplikatzen bagara lortuko dugu.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Zutik, ezkerretik hasita, Amaia Iriondo, Mertxe Arburua, M^a Kruz Plaza eta Axun Irtzoki. Beheitan, ezkerretik hasita, Ixabel Jaimerena, Pakita Maia eta Lili Oronoz.

LAUGARREN ADINA MARTXAN → EMAN-HAR JUBILOKIA ZERBITZUA URDAZUBIN

Zahartu arren, burua gazte eta ilusiorik galdu gabe

Adinekoen eta familien bizi-kalitatea mantendu edo hobetzeko zerbitzua paratu dute martxan

Eman-Har jubilotokia ireki dute Urdazubin laugarren adinekoentzako. Elkargune bat da, eta eguneroan ilusioa eta motibazioa bilatzen

laguntzeko helburuarekin sortu dute. Astean bizpahiru aldiz biltzen dira eta hiru orduko tarte goxoa pasatzen dute.

G. PIKABEA

«Adinekoak kontuan hartu behar ditugu, gizartearentzako beharrezkoak direlako. Jakinduriaz betetako kuxak bezala dira: gerra bat eta pobrezia bolada haundiak bizi izan dituzte, haurtzarotik gogor lan egin behar izan dute eta milaka bizipen eta esperientzia bizi izan dituzte. Gaur egungo azkarta-

sunak dela eta, denborarekin gaitzen ari diren ohi-turak ere ezagutu dituzte». Halaxe uste dute Amaia Iriondo eta Axun Irtzokik. Bat zein bertzea adinekoekin urte-luzez lanean ari direnak dira eta beraien irudiko, «hirugarren adinekoa» kontzeptuak erranahia galdu du: «gaur egun, beharrak laugarren adinean daude, hau da, 80

urtetik aitzinerako pertsonen bizitzako azken fasean. Etapa honetan adinduak bere independentziaren alde borrokan segitzeko nahiaren eta mugikortasuna eta osasuna desagertzen ari zaizkion ebidentziaren artean oreka bilatu behar du». Hori horrela, hutsune horri erantzuteko helburuarekin eta «adinekoek ere merezi dute-

la» iritzita paratu dute martxan Urdazubin Eman-Har zerbitzua. Eman «persona hauek beraien denbora, disponibilitatea eta oinordetza eskaini dietelako ingurukoei eta gizarteari» eta hartu «orain beraien dagokielako merezi duten arreta jasotzea». Jubilatuta eta pentsionistek eta hauen familiei beraien «bizi-kalitatea mantendu eta ahal bada hobetzeko» asmoz ireki dute elkargunea da Eman-Har jubilotokia. Honetan guztian, lehenbiziko pausua Urdazubi eta Zugarramurdiko mediku eta erizainak eman omen zuten: «Bernardette erizaina izan zen laugarren adinekoen beharrez ohartu zena eta gaur egun, Bene medikuak jubilotokia errezetatu edo aholkatzen du». Irtzoki eta Iriondok azaldu digutenenez, «egunerokoan ilusioa eta motibazioa sortuko dien talde bateko partaide sentiaraztea da zerbitzuaren xedea, senar, seme-alaba eta biloben garaia gibelean utzi,

DATUA

132

JUBILATU

daude Urdazubin eta Zugarramurdin, 75 eta 57, hurrenez hurren. 65 urtetik goitikoak sartzen dira multzo horretan, hau da, biztanleriaren %22.

eta laguntasun harreman berreskuratzeko».

Bidea, ordea, ez zaie erraza egiten ari. Urtebete baita proiektuarekin hasi zirela. Eta sei hilabete eman dituzte lokalaren gibeletik. Udan Zugarramurdiko eskolan egon ziren, Sorginen Museoan ere bai eta eguraldi onarekin inguruko herrietako eliza, parke eta frontoiak ere ederki ezagutu dituzte... «Baina guk gure lekua behar genuen, gure gauzak uzteko», diote Irtzokik eta Iriondok. Azkenean etxebizitza izandako bat hartu dute errentan, Ur-

dazubiko plazan, eliza-
ren ondoan. Eguberri-
tan hura egokitu ondo-
tik, hortxe biltzen dira ur-
te hasieraz geroztik. Urta-
rilean astelehen, asteaz-
ken eta ortziraletan el-
kartu ziren, eta otsai-
lean, astelehen eta or-
tziraletan biltzen dira,
«proiektuarekin ezker-
eskuin gabiltzalako».

DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOEN BEHARRA

Batera eta bertzera
atejoka dabilta, bidera-
garria izan dadin. Izan
ere, une honetan erabil-
tzaileek hilabetero or-
daintzen duten 40 euro-
ko kuota da diru-sarrera
bakarra. Gainerakoa
Axun eta Amaiak ordain-
tzen dute. Eta gastuak
ez dira ttikiak, egoitza-
ren alokairua eta bertze-
lako gastuak ordaindu
behar baitituzte. Hortaz,
Urdazubi eta Zugarramur-
dikoko Herriko Etxeei
babesa eskatu diete eta
kontatu digutenez, «ja-
rerra ona» ikusi diete, «di-
ru-laguntzetan nola ko-
katu aztertzen ari direla
erantzun digute». Baz-
tango Gizarte Zerbitzuei
ere proiektua aurkeztua
diete eta Udalbiltzari ere
egitasmoaren berri emate-
kotan dira. Ez daude
geldirik. Arkupeak Elkar-

tearekin ere solastuak di-
ra eta Cederna Garalar
Elkartearekin ere har-
remanetan daude. Izan
ere, «hau guztia lagun-
tza publikorik gabe ez
dela bideragarria» diote.
Aitortu digutenez, «lan-
da eremuan proiektu be-
rritzailea da eta bagene-
kien kostako zitzaigula,
baina proiektuan aunitz
sinesten dugu». Esfor-
tuzia eskatzen diela iku-
sita, «erantzunak fite be-
har ditugula» aipatu di-
gute.

KONTZIENTZIAZIOA

Bertzelako lana ere
badute, eta diotenez,
«haundia»: «80 urteko
persona bat hotzarekin
etxetik ateratzeko lan
haundia egin behar da.
Zerbitzuak beraiei adituz
funtzionatzen du, beraie-
kin egonez... Beraiekin
bazaude gustura dau-
de». Iriondo eta Iratzoki-
ren arabera, «adinekoe-
kin ez gara batere justu-
ak» eta gaineratu dute
«profesional bezala, har-
remana errazagoa dela
familiarra baino. Familia-
koa nekatua dagoelako,
aspertua». Esperientzi-
ak erakutsi die «norbai-
tek aditzen diela ikus-
tean adinekoak aunitz
pozten direla. Gero etxe-
ra joatean, egoera ez da



ARGAZKIA: G. PIKABEA

M^a Kruz ezkerrean margotzen, eskuinean Mertxe.

ABIAPUNTUA

«Bernardette erizaina
izan zen laugarren
adinekoen beharrez
ohartu zena eta gaur
egun, Bene medikuak
jubilotokia errezeta-
tzen edo aholkatzen
du».

Axun eta Amaia
Eman-har zerbitzuaren
bultzatzaileak

egun osoan sutondoan
egoten direnean bezala.
Umorea aldatzen zaie eta
etxe horretako bizi kalita-
tea ere hobetu egiten da».

Eta Eman-Har zerbi-
tzuan dabilzan adineko-
ak dira horren lekuko.
Gaur egun, bortz dira egi-
tasmoan parte hartzen
dutenak, nahiz eta ha-
mabi-hamabortz nahi di-
tuzten proiektua aitzine-
ra ateratzeko. Denak ere
emakumezkoak dira eta
80 urtetik goitikoak: Ur-
dazubiko Pakita Maia
Ariztia, Ixabel Jaime-
rena Iturburua eta M^a
Kruz Plaza Aroztegi, Zu-
garramurdikoko Mertxe Ar-
burua Iparragirre eta Sa-
rako Lili Oronoz Argara-
te. Denak baieztatu digu-
te «aski gustura» daude-
la. Pakitak, erraterako,
honela kontatu digu: «se-

me-alabak lanean ari di-
ra eta beti etxean, geldi-
geldi egonez aspertu egi-
ten naiz. Arratsaldea aile-
gatu eta telebista ait-
zinean istant batez ego-
ten naiz, baina berehala
aspertzen naiz. Hemen
biltzen garenetik aski
gustura nago. Denak
ezagunak gara eta ongi
pasatzen dugu».

Astean bizpahiru al-
diz bi arduradunak etxe-
etxe joaten dira adineko
erabiltzaileen bila eta Ur-
dazubiko plazan duten
egoitzan elkartzen dira,
16:00etatik 19:00etara.
Hiru orduko tartea kon-
tu kontari, eskulanak egi-
tenez eta jolasean pasa-
tzen dute: lehenbiziko or-
dua infusio bat hartu
bidenabar solasean, bi-
garren ordua eskulanak
eginez, eta azken ordua
jokoetan. «Irri aunitz egin
ondotik etxera buelta-
tzen gara», diote susta-
tzaileek. Hortik aparte,
tailerrak antolatuta izan
dituzte eta gehiago egite-
ko asmoa ere badute.
Herriko ekintzetan ere
parte hartu nahi dute.
Eguberrietan, adibidez,
egoitza egokitzen ari zire-
la, Olentzeroren bisita
izan zuten. «Olentzero
ikusi nuen lehenbiziko al-
dia izan zen», dio Paki-

tak. Eta bingoa ekarri
ziren opari. Gisa berean,
gazteak ere hurbildu izan
zaizkie: «musean aritze-
ra etorri izan dira». Be-
raiek hartua duten egoit-
zari herriko bertze era-
gileek ere probetxua atera
diezaioketela uste du-
te: «leku hau ordu auni-
tzez hutsik egoten da eta
haurrek, Urdazubiko an-
dre taldeak edo bertze
edozeinek erabili nahi
badute hementxe dute».

Eskaerak, beraz, ma-
hai-gainean dago, eta
zerbitzua ere zabalik da-
go. Orain, berriz, jarrai-
pena ematea gelditzen
da. Sustatzaileen alde-
tirik ez da borondatearik
falta eta Pakita, Ixabel, M^a
Kruz, Mertxe eta Lili ere
ez zaie gogorik falta. Ilu-
sioz beterik egoten dira
hitzorduaren esperoan.
Beraien gisara tarte atse-
gina pasatu nahi dute-
nek ere atea zabalik du-
te, Urdazubiko plazan.
Eta ez dira gutti beraien
adinean daudenak, 65
urtekin goitiko 132 lagun
baitaude Urdazubin eta
Zugarramurdi. Horien-
tzean da Eman-Har jubi-
lotokia, urte luzez emate-
n aritu ondotik, orain,
hartzeko tenorea ailega-
tu zaielako. Eta guztia la-
gunartean.



ZERBITZUAREN BEHARRA

«Lehen familiak aise haundiagoak ziren eta
etxeoandrea beti etxean egoten zen. Orain,
ordea, kanpoan dago. Gainera, adinekoak batz
bertze bortz urte gehiago bizi dira eta horregatik
ikusitako behar berriak».

Axun IRATZOKI eta Amaia IRIONDO
Eman-har zerbitzuaren bultzatzaileak



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Zenbat buru...

Horrendako epelegia, axalekoa, nahasiegia edo errepikatuégia; harendako, berriz, irakinegia, gordinegia, zailegia edo ahalkegabeegia. Hauendako grisa, hitsa eta goibela; haiendako, aldiz, argia, dirdiratsua eta eguzkitsua. Batari musika ahaire, usain eta zapore guziak atseginak iduritzen; bertzeari, ordea, etxeko doinu, lurrin eta zapore tradizionak unibertsoko one-nak direnik ez uka. Batzuek astoek bezala arrantzaka beren buruak laudatzen; bertzeak, ostera, laudatzeko superizar arrakastatsuen ondotik arrastaka lerdia daria. Haren ustez, ahobero, ergel, harro eta nardagarria dena, horren ustez, erakargarri, interesgarri, zintzo eta eredugarria izaki. Batzuek traidore, etsai, lapur ustel edo gaizto zikin; bertzeendako, aitzitik, heroi, adiskide, diruzain prestu edo jainko salbatzaile. Hemen, han, noiznahi eta nonahi bezalaxe, zenbat buru... hainbat arriburu, artaburu, adaburu... eta aburu, bistan da.

«Noiznahi eta nonahi bezalaxe, zenbat buru... hainbat arriburu, artaburu, adaburu eta aburu»

Ezpala
Aitor AROTZENA

Entzierrora derrigorrez

Ez dut gehiago bizi nahi euskaraz ikastera derrigortu, Agur Jaunak dantzatzera eta Aurreskua kantatzera behartu, Santa Agedari abestera zigortu, Olentzero adoratzera obligatu, ebakuntzak egiten ez dakiten mediku euskaldunei lanera sartzeko erraztasunak eman eta nahitaez Sanferminetako entzierroran ateriarazten zaituzten herrialde batean. Siriara noa lasaitasun bila.

Nabarmentzekoak



Jon BARBERENA
Elizondoko bertsolaria

Nafarroako bertsolari txapelketan finalurrekoetarako lehen sailkatua izan zen, Iruñeko Katakakren otsailaren 7an jokaturako saioan ongi nagusitu ondotik. Berriozarren ariko da.



Joseba LEGARRA
Erreka elkarteko presidente

Nafarroako klubik onena izendatu dute Doneztebeko Erreka eta Iruñerria saria biltzera joan zen ordezkari buru izan zen Joseba Legarra. Sari handia 1976an sortu zen elkartearantz.



Endika URRUTIA
Erremontelari erregularrena

Joan den urteko erremontelari erregularrena izendatu dute saldiaz-tarra, partida nagusiak jokatzeko dituzten A multzoen artean. B multzoan, berriz, Patxi Olazar doneztebarra izan da.

Atzera begira →
2005-II-24 /
TTIPI-TTAPA 392. zk.



Rafa Maritxalar Nafarroako txapeldun kros laburrean

Duela hamar urte Nafarroako kros laburreko txapelketa irabazi zuen Rafa Maritxalar korrikalari lesakarrak eta astebete beranduago, Euskadiko kros txapelketan bigarren izan zen. «Ez nuen ez bat ezta bertzea ere espero, banekien hor hurbil egoten ahal nintzela baina ez nuen hain fin nintzenik uste», zioen. 32 urterekin palmares luzea zuen lesakarrak: «Neretako momentu garrantzitsua Espainiako 1.500 metroko txapelketan zortzigarren gelditzea izan zen». Izan ere, «nik bereixi ahal banuke, pista eginen nuke, baina hemen dauden instalazioekin, ezin duzu kondiziotan prestatu eta pista baztertu dut» aipatu zion.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola Berriemakaleak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maitte Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebexa, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZZENASGOA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Espainiar estatuko lotsa

Juainas PAUL ARZAK

Espainiar estatuko lotsa-emangarritasunak beste urte bat bete behar duenean, PPko gobernuak pausu berri bat eman du.

Noski, sahararrek ez dute Espainiako errege-estatu-bandera-armada-gobernuaren babes berezi. Hobeki esana... gauzatzeko egin beharrekoak ekar dezaketen auskalo zer hori da berezi ez duena. Ez du berezi Nazio Batuetan, Espainiako gobernuari ederki kostatu zaion Seguritate Kontseiluan jarleku ezegonkorra lortuta, haien autodeterminazioaren alde ahotsa altxatzea, gobernu berak horrelakoetan ez duelako sinisten, alde batetik, eta deskuidatzen bazara horren arrimura beste batzuek antzekoa eska dezaketelako. Saharakoak diren aberastasunak lapurtu daitezke Europako Batzorde gisako erakunde handi batek babesten baldin badu edo ez, eta beti probetxua ateri.

Oposizioan dauden alderdiak euren santutasuna aldarrika dezakete, gobernura ailegatzearekin hitzak eta promesak haizeak eramaten baitu... eta horrela ia-ia berrogei urte.

Beste hainbeste urte-39 bat- darama Europako eta estatuko gizartearen zati bat ahal duen moduan sahararrak laguntzen. Ordea, kontuak eskatzen ditu? Esaterako, PSOEko zenbat lagunek oroitarazi diote Felipe Gonzalezi bere faltsu-keriak? PPri botoa ematen dioten zenbat gogor-erazi diete alderdikoei Saharari buruz esandakoak ez dituztela behin ere bete? Horrela nola ez dute zutaz, gutaz irri egin behar?

Eta neurriak baldin etorri da 2015ekoa. Terroristak salatzen dituzten tratatu txarrak ez dira ikertzen... terrorista izateak eskubiderik ez izatea dakarrelako? Gizakiak ote?

Eta Hassana Aalia? Ez zuen terrorismoa erabili, erresistentzia kanpaldi batean parte hartu baizik. Maroko okupatzailearen torturak salatu ditu, auzitegi militar batek bizi osoko espetxe zigorra jarri dio defentsa eskubideak urratuta: **Espainiako gobernuak asiloa ukatu dio. Giza-eskubideak babesten duen demokrazia?** Sahara sahararentzat!

«Eta Hassana Aalia? Ez zuen terrorismoa erabili, erresistentzia kanpaldi batean parte hartu baizik. Maroko okupatzailearen torturak salatu ditu, auzitegi militar batek bizi osoko espetxe zigorra jarri dio defentsa eskubideak urratuta: **Espainiako gobernuak asiloa ukatu dio. Giza-eskubideak babesten duen demokrazia?**»

Buru osasuna zaindu

Miren ARANGUREN (ANASAPS)

Banakako eta taldeko arretaren arduraduna

1 946. urtean Osasunaren Munduko Erakundeak osasuna definitu zuen lehen aldiz. Osasuna eritasun gabezia baino gehiago zela baieztatu zuen. Honela, osasuna ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera gisa definitu zuen, modu honetan, alderdi positibo eta bitalak azpimarratuz. Ongizatea osoa izan zedin, beharrezkoa suertatzen zen harmonia eta oreka osasungarria ziurtatuko zituzten beste faktore batzuk kontuan hartzea. Gaur, definizio hau erabat onartuta dago osasunaren arloan eta bereizgaitza den galdera dakar barne. Zeintzuk dira oreka osasungarria ziurtatu ditzaketen faktore horiek? Nola lortu ongizatea osoko egoera hori? Galdera hauek erantzuteko, maila psikiko eta sozialean jarriko dut arreta, buru osasunean gehienbat.

Gizabanakoak pentsatzeko, jokatzeko nahiz sentitzeko gaitasuna du; oinarriko dimentsio hauek aurkitzen da osasuntsu egotearen erantzunkizuna. Emozioei dagokienez, bi gai azaltzen zaizkigu bereziki azpimarragarriak: emozio positiboen bizipena eta emozioen adierazpena. Gizabanakoak plazerra bilatzeko joera innatua dauka, emozio positiboak bizi izatera jotzen du. Hauek ingurunearekin elkarrekin-tza atsegina adierazten duten emozioak izango lirateke: alaitasuna, poza, gogobizia... guzti hauek sufrimendu gabezia adierazten dute, zalantzarik gabeko osasunaren adierazle. Dena den, emozioen munduan tarte izugarri zabala aurki dezakegunez, pentsa ezina da sufrimendurik gabeko bizitza, emozio negatiborik gabekoa. Zer egin, beraz, emozio desatsegin hauekin? Ikerketek adierazten dute arazoez mintzatzeak pertsonengan eragin positiboa duela. Pertsona hobeto sentitzen da, lasaiago, arinduago; honek hobeto funtzionatzea ahalbidetzen dio eta sintoma psikologiko gutxiago agertzen dira.

Emozio positiboen bilaketan, gure denbora librean aurkitu ditzakegu aukera goxoenak. Aisialdiaren erabilera egokia, berebizikoa da gizakiarentzat eta bizi kalitatearen areagotzean eragina du. Nola erabaki ba, zer egin gure denbora librean ahalik eta osasuntsuen mantentzeko? Pertsona orok potentzialitate aberats bat gordetzen dugu gure baitan, non gure baliabide personal guztiak aurkitzen diren. Garrantzitsua da baliabide hauek puntu gorenera eramaten dituzten jardueretan parte hartzea, gure pertsona erabat aberasten dutelako (...) Edozein jarduera onuragarria izan daiteke, norbere garapen pertsonalean eragina duen heinean. Honek ere autoestimian eragin handia dauka, gure burua maitatzea errazten duelako, gure indar eta gaitasunetaz kontzientzia hartzen laguntzen gaituen bitartean.

Aisialdia gure burua ezagutzeko adierazle nabarmena da, bakoitzaren identitatean sakontzea ahalbidetzen duelako. Aldi berean, gure burua ezagutzeak besteekin harreman atseginagoak baimentzen ditu, behar ditugun eta disfrutatzen ditugun harremanak bilatzera eramaten gaituelako. (...) Bukatzeko, aipatu beharra dago guzti hau buru osasuna mantentzeko lagungarria den modu berean, arazo psikologiko edo buru eritasunik ez pairatzeko babes faktore dela ere, probabilitateak nabarmenki gutxitzen baititu. Beraz, zaindu ezazu zure burua: disfrutatu, gozatu, sentitu, konpartitu, maitatu... zoriontsu izan!

Irakurleak mintzo

ETB2

Xanti **BEGIRISTAIN** (Auritz)

Gogoratzen dut, orain dela 30 urte baino gehiago, behin tokatu zitzaidala eskolako ematea Iruñeko ikastola batean, eta egokitu zitzaidanean hauerrei gaztelania ematea, oroitzen naiz sentitu nintzela oso arraro, deseroso eta gaizki; bortxatua, behartua bezala, beti euskaraz mintzaten nintzen haurrekin, orduan, nahi eta nahi ez, gaztelaraz egitera behartua. Ez nuen batere gustuko eta gogokoa izan. Ez nuke berriz ere esperientzia hura errepikatu nahiko.

Hala eta guztiz ere, ETB2n, behin eta berriro ikusten dugu kazetariek eta abarrek behartzen -edo gutxienez bultzatzen- dituztela Euskal Herriko herritar euskaldunak espainieraz eta frantseseraz egitera, urrutirago joan gabe, atzo bertan, 2015-02-05ean, elurra zela eta ez zela, Abaurregainan ikusi nuen nola ETB1en hiru gizonezkoak hitz egin zuten euskaraz, eta geroago, beste norbaitek ETB2 piztu zuelako, ikusi nuen nola pertsona haiek beraien esan zituzten gauza berberak espainieraz, segur aski, EITBko langileek behartuta edo gutxienez bultzatuta, ez daukat zalantzarik txikiena ere. Niri ere, bizitzan zehar, behin baino gehiagotan egokitu zaizkit antzeko egoerak eta beti uko egin izan diot kazetari euskaldun

bati erdaraz mintzatzeari EITBrako; beti gizalegez eskatu izan diet ni ez behartzeko gaztelaraz egitera nahi gabe, alegia, itzulpena egin dezatela haiek beraien -horretarako dituzte- eta hainbeste lankide eta baliabide ekonomiko- eta ez elkarriketatuak, bestela, nik ez dakit jendea konturatzen den ala ez, baina kontua da, lehendabiziko moduan jokatuta, gertatzen dena da, EITB erakundea bera dela hainbat euskaldun bortxatzen edota bultzatzen duela erdaraz egitera (berdin Ipar Euskal Herrian), eta, teoriaran behintzat, EITBren helburua, nik uste dut guztiz aurkakoa zela, horretarako uste dugu -uste genuen- asmatu eta egin zela.

ETB1en badaude salbuespen duin batzuk, konparaziora, Maialen Iriarte, Andoni Aizpuru, Xabier Usabiaga, Xabier Euzkitze... beti nire ustez; baliatze oker egotea- euskaraz aritzen eta aritu direnak, baina badago beste langile mordo bat -esatarriak, korrespontsalak, aurkezleak, e.a.- ikusten ditugunak axola handirik gabe aritzen direnak euskaraz, frantseseraz eta gaztelaraz. Orduan nik gogoratzen dut ikastolako, aspaldiko nire esperientzia desatsegin hura: EITBko langile horietako asko ez ote diren sentituko, ni garai hartan sentitu nintzen bezalaxe, hau da, deseroso, gaizki, behartua, eta abar.

Dagoeneko jende as-

ko gara, askotan idatzi, esan eta adierazi dugunak ez gaudela batere ados EITBren jokabide horrekin, baina beraien moldea aldatzen ez duten bitartean euskararen mesederako, hots, euskararen alde ekintza positiboak egiteko, behartuta sentituko gara behin eta berriz, hone-lako desadostasunak azaltzera.

Hasteko, nik animatuko nuke jende euskaldun guztia ez erortzeko joko txepel horretan, alegia, 'orain esanen al didazu gauza bera erdaraz, mesedez?'. Egin boikota eta esan ezazue ezetz! Gero geroakoak!

Zubietako eskola

Ana **URROZ** (Malerrekako herrietako eskolen izenean)

2014ko udaberrian Zubietako hainbat familiak udalari herriko eskola berriro irekitzearen interesa adierazi zioten. Famili horiek udaletxeari eskaera formala idatziz egin zuten eta haiek aho batez pleno batean erabaki zuten Nafarroako Hezkuntza Departamentuarekin bilera eskatzea gai hau joratzeko.

Uztailean Hezkuntza Departamentuan Zubietako Udaleko ordezkariak (alkatea, zinegotzi bat eta udaleko idazkaria) eta Hezkuntza Departamentuko ordezkariak (David Herreros, Juan Ramón Elorz eta Isabel Mendoza) elkartu egin ziren.

Hasieratik Hezkuntza Departamentuak Landa Eremuko Eskolen alde lana egiteko interesa bazuela argi eta garbi jakinarazi zuen eta beharrezkoak diren baldintzak betez gero prest zeudela berirekitzeko.

Hezkuntza Departamentuak eskatutako eta Zubietako herriak **betetako** baldintzak:

- Gutxienez **bost** familien alde aurretiko matrikulazioarekiko idatzizko konpromisoa.

2015/2016 ikasturterako 3 urteko bost haur.

- Hurrengo ikasturteetan **jarraipena** izatea.

2016/2017 ikasturterako 4 haur matrikulazioaren sinatutako konpromisua.

- Udalak **eraikuntza** beharrezkoak ziren **hobekuntza** lanak egitea.

Zubietako udaletxearak 2015erako aurrekontuetan diru kopuru esanguratsua gordea eskolarako.

Lan hori ilusio eta gozoz beterik bete zen. Familiak animatu ziren, sinatu zuten eta Hezkuntzatik bidalitako teknikaria etorri zen ikuskapena egitera.

Aurre-matrikulazio garaia ailegatu zen eta familiek aurre-matrikulazioa non eta nola egin behar zuten galdetzen hasi ziren udaletxean. Hau ikusirik Udala Hezkuntza Departamentuarekin harremanetan jarri zen. Aurre-matrikulazioa hasi baino 3 egun lehenago ezetza telefonoz jakinarazi zion Zuzendari Nagusiak, Da-

vid Herreros, alkateari. Azalpenak eskatzerakoan Uztaileko irizpideetako bat bapatean aldatu egin dute: **orain 8 ikasle behar dira eta ez 5.**

Nafarroako Parlamentuak Landa Eremuko Eskolen aldeko Dekalogoan onartu eta sinatu zuen. Bertan konpromisua hauek (beste batzuen artean) hartu zituen:

2. Irekierak eta berriekierak: Ikasle kopuru zehatz bat heltzean, eskolak ireki edo berriekierak ireki eskatzen badi.

3. Ikuspegi ez ekonomizista, zerbitzu publikoak: Herriak bizirik mantentzeko, zerbitzu publiko gisa ulertu eta etekin ekonomikoan gainera beharrezkoak diren inbertsioak egitea. Malerrekako herrietako eskolen izenean ZERA eskatzen dugu:

- **Zubietako eskola irekitzea.**

- **Hezkuntza Departamentuak eskolak irekitzeko ezartzen dituen irizpideekin ez jolastea eta seriotasunez lan egitea.**

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:


info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Herrietako taldeok zailtasun gehiago izaten ditugu hedapenari dagokionez... Hala ere, sarearen bitartez norberak bilatu behar du bere oihartzuna eta horri garrantzia ematen diogu».
«Momentua bizitzeko ideia muturreraino eraman nahi izan dugu, beldurrak eta konplexuak albo batera utzi, zoriotsu egiten gaituenari ekin, eta sekula damutu gabe!»

DAMA TALDEA
Doneztebeko musikariak
BADOK.INFO 2015.01.27



«Errazagoa zait beste-en letrak hartu eta horri musika jartzea neu letrak idazten hastea baino. Batzutan idazteagatik idazten duzu, eta askotan jendeak askoz hobeto azaltzen ditu gauzak».
«Niri bezala Euskal Herriko musikari askori gertatzen zaigu kontzertuak jo, asko jotzen ditugula, baina sakelak armiarmaz josiak ditugula».

PETTI
Berako musikaria
ORTZADAR 2015.01.31

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zeniguke zure burua?

Azken boladan saltsa aunitzetako perrexile den neska bat.

Lekaroztarra ala baztandarra sentitzen zara lehenagotik?

Batak bertzea berekin darama: lekautzarra eta baztandarra.

Zer du Lekarozek Baztango berzte herriek ez dutena?

Sagardotegia! Kar, kar, kar.

Zein afizio dituzu?

Bat aipatzekotan, kantu zaharrak ikasi eta kantatzea.

Ikasleak ala bertsolariak dominatzea da errazagoa?

Bertsolariak dominatu beharrik ez dut izan orain artio... Ikasleek lan gehiago ematen dute!

Kar, kar, kar.

Zein herri edo hiritako ikas-tetzetan ariko zinateke gustura irakasle?

Nire herrian, Lekarozen; horrek erran nahiko luke berriz eskola irekitzea lortu dugula.

Zein edo zer da zure inspirazio iturria bertsotarako gaiak pentsatzerako orduan?

Nire bizipenak, aktualitateko gertaerak, eta.....
Goenkale! Kar, kar, kar.

Baduzu Txapelketan

txapelundun izateko faboritorik?

Badut bai... baina ez dut hemen erranen! Kar, kar, kar.

Gustura ezagutuko zenukeen toki bat?

Aunitz ditut ezagutzeko!

Besta egiteko toki bat?

Buf... ezin bakarria hautatu! Nafarroaren Eguna, Lesaka, Goizueta... eta nola ez, Baztandarren Biltzarra!

Amets bat?

Irri eta ajata aunitz bez betetako bitzita, seinale ona izanen zen.



Elisa ALMANDOZ → Lekarozko gaztea

MARITX

Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio individualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Digital + banatzaile ofiziala

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

zalain
JATETXEA · RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOS - MUGAIRI

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

GIZARTEA

BIDAIAK → UDARA BEGIRA

Aurten ere Ameriketara bidaia antolatu dute euskal artzainek

Boiseko Jaialdian ere parte hartzeko asmoa dute

TTIPI-TTAPA

Euskal Artzainak Ameriketara bidai bat antolatu du berriro. Hasiera batean Nevada aldera joatea pentsatu bazuen ere, aurten Boiseko Jaialdia ospatzen den bezala, eta ospakizun hori 5 urtetik behin antolatzen den bezala, hiri hori ere bere ibilbidean sartu du elkarteak.

Beraz, uztailaren 29an Bilbotik aterako dira, eta San Francisco gaua igaro eta gero, goizean Boise aldera joango dira berriro hegazkina hartuz. Bertan 3 egunez Ameriketako hainbat Estatu ezberdinetan geldituko euskaldunak berriro ikusteko aukera izanen dute, «eta besta/emozioa eta elkartratzeekin disfrutatuko dugula zihur gaude», Euskal

Artzainak Ameriketara Elkarteak Laura Iganzik aipatu digunez.

Honen ondoren Nevada aldera joaten dira, Elko Nevada, Weenemoucca eta Renoko hiriak eta euskal etxeak bisitatu. Azkeneko hiri honetan, Artzainen omenez egindako eskultura ikusteaz gain, bertako unibertsitateko irakasle eta artzain euskaldunen historia hain ongi ezagutzen duen Joxe Mallearen laguntza izanen dute, lertxunen baso batera joateko, eta enborretan idatzitako hainbat mezu ikusteko.

Ondoren, Tahoe aintziran bazkaldu eta bistaz gozatu eta gero, San Francisco, Napa eta Sacramento aldeko lagunak eta senitartekoak ikusteko aukera izanen dute. Itzulera abuztuaren 13an izanen da.

Laura Igantziaren erranetan, «maitasun eta ilusio haundiarekin antolatu dugu bidai hau, eta lehenik elkarteak bazki-



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Artzainak, joan den urtean Kaliforniara egindako bidaietan.

deei izen emateko aukera eman zaie eta orain artzain eta senitarteko guztiei luzatu nahi diegu deia, beti ere aurreikusi ditugun 70 plazak bete arte».

Izen-emateko epea

martxoaren 21ean bukatuko da, eta fiantza ordaintzen den egunari begiratuko zaio plazak banatzeko. Beti ere artzainak lehentasuna izango dute, aukeratu duten lagunarekin.

Informazio gehiago beharizanez Laura Iganzikarekin (948 638204, arratsaldean edo gauean) edo Angie Otxandorenairekin (626908076) harremanetan jarri behar da lehenbailehen.

JULIAN IANTZI AURKEZLEA GIDARI DUTELA

Artzainen bidetik bertze lau bidai egiteko aukera eskaintzen du Itsaslurrek

TTIPI-TTAPA

Boiseko Jaialdia ez ezik, AEBra joan ziren artzainek ezagututako bertze lekuak bistatzeko aukera ere ematen dute Itsaslur Agentziak antolatu dituen bidaiak, Julian Iantzi ETBko aurkezle lesakarra gidari dutela. «Gure helburua hango euskaldunak eta hemengoak harremanetan jartzea da, elkartrukeak egitea alegia. Hango gazteei bere gurasoak edo aitaxi-amatxiek ongi ezagutzen duten Euskal Herria ezagutzeko aukera bat ematea (gehienetan sekula ez dira etorri eta duten ideia nahikoa erromantikoa da...), eta hemengo gazteei, berriz, han euskalduntasuna nola bizi duten jakitera

eman» dio Iantzik. Boise, New York/Boise, Artzainak Kaliforniatik Idaho-ra eta Idaho-Utah, Natura bizia dira eskaintzen diren lau aukerak.

Joan den urtean Kaliforniara egin zuten bidaia 40 Euskal Artzainekin eta bere familiakoekin (Nafarrak eta Iparraldekoak) eta oso esperientzia polita bizi izan zuten. Gainera ETBko arrakasta handia izan zuten bi dokumental saio ere grabatu zituzten. «Benetan bidaia hunkigarria, berezia, emozioz betea... izan zen gure artzainak pozik, negarrez, urduri, ilusioz gainezka ikusi genituen. Gaztetan lanean ezagututako lekuak berri ere ikusi zituzten, Euskal Etxeak bisitatu...» dio Iantzik.

ola
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAI AIREKIA

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

BORDAKO

Gure Haragia
Nuestro Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

LABEZAR

Tel: 948 631 076 • BERA

GIZARTEA → OTSAILAREN 10ETIK 16RA IZAN ZIREN

Poloniako ikasleak Labiagakoeekin elkartrukean

Ikastolako ikasleek martxoan bueltatuko diete bixita

TTIPI-TTAPA

Poloniako Szczecin-eko Espol Szkol Spoecznych ikastetxeko 24 ikasle eta bi irakasle gure artean izan

ziren joan den astean, Labiaga ikastolaren eskutik. Ingelera erabiliz elkartruke baten programaren baitan egin dute ezagutu dute elkar Polonia eta Berako DBH2ko ikasleek.

Poloniarrek aste baterako etorri ziren. Astelehenean ongi etorria eta show-a eskaini zitzaizen, bertsolari, dantzari, trikitalari eta txis-



UTZITAKO ARGAZKIA

Labiagako eta Poloniako ikasleak, joan den astelehenean herria ezagutzuz.

tulariekin eta astean zehar Donostia eta Iruña bixitatu eta Ortzegun Gilzen eta inauterietako ohiturak ikusi ahal izan zituzten. Igandean, Beran lñudeak eta artzaiak ikusi ondotik Lesakan bazkaldu eta zakozarrak ikusi ondotik agurtu zituzten poloni-

arrak. Ez da betirako agurra izanen, martxoaren 23tik 30era Poloniara joatekoak baitira Labiagako 23 ikasle.

Leire Barrutia, Labiagako irakasleak aipatu digunez, «proiektuaren nondik norakoa irakasleek antolatu badugu ere ikasleen lana poloni-

niarrak etortzeko aste honetan egin dugun guztia antolatzea izan da. Taldeka plan bat antolatu, aurrekontua egin, behar duen lekutara deitu... eta gero klase guztiaren aurrean aurkeztu. Horixe izan da joan den astean bete dute plangintza».

BAKEA ETA BIZIKIDETZA SENDOTZEKO

‘Auzolanean bakea eraikitzen’ jardunaldiak antolatu ditu Udalak

TTIPI-TTAPA

2013an martxan paratutako Bakea eta bizikidetza planaren baitan, iraganaz, orainaz eta etorkizunaz aritzeko, herritar guztiei irekitako hiru saio antolatu ditu Udalak, *Auzolanean bakea eraikitzen* lelopean. Bidezko bakea eta memoriaduna eraikitzea da helburua, iragana argituz, oraina normalizatuz eta etorkizunaren adiskidetzeari lortuz. Saiotako bakoitzak gai horietako bat landuko du.

Hiru ortzegunez izanen dira saioak, 19:00etan, Beralandetan. Lehenbizikoan, otsailaren 19an, Paco Etxeberria ariko da, *Iragana: egia, justizia eta erreparazioa* gaia hizpide hartuta, gaztelaniaz.

Otsailaren 26an, *Oraina: bakegintzaren ikuspegiak* jorratuko dituzte Baketikoko Iker Usonek eta Foro Sozialeko Aitziber Blancok euskaraz.

Martxoaren 5ean, aitzineko bi saioetan landutako gaiak oinarri hartuta, herritarren partaidetzarekin, etorkizunaren inguruan hausnartuko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Munduko I. Ilar lehiaketa egin du Labiagak

Labiaga ikastolaren 40. urteurrenaren ospakizunen artean, Munduko I. Ilar lehiaketa egin zuten otsailaren 1ean. Lau talde desberdinek prestaturiko eltzariak epai mahai zorrotz baten ahotik pasa ondoren, ikastolara hurbildu ziren lagun guztiak ilar jatearekin bero-bero asebetetzeko aukera izan zuten giro alai eta goxoa zela nagusi. Argazkian alabekin ageri diren Josune Urroz eta Saioa Mitxelenak irabazi zuten lehiaketa.

FLASH

Haurrentzako ipuin kontalaria

Otsailaren 20an, ortziral arratsaldeko 6etan, Maite Franko haurrentzako ipuin kontalaria *Filomena Musugorri Errege eta beste ipuin batzuk* kontatuko ditu herri liburutegian. 4 eta 7 urte arteko neska-mutikoei zuzendutako emanaldia da.

Bera kantari

Hilabeteko azken larunbatetako ohiturari eutsiz Bera kantari aterako da otsailaren 28an, 19:00etan Illekuetatik eta ohiko ibilbidea egingen dute karririkaz karrika.

Parafitea
Ureztatuta
BEANDONEA, s.l.
 FARMATIA ETA BARAZKIAK

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
 Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

BAR
Botxo
OSTATUA

Zalain • BERA • 948 630 052

JAKONE - GOZOTEGIA

948 630 786
 Altzate, 19 • BERA

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA
 Jose Luis & Coro
 Kanttonberri 12 • BERA

Tfno/Fax: 948 630 018

LESAKA

GIZARTEA → OTSAILAREN 28A ETA MARTXOAREN 1A

Asteburu berezia prest dute kiroldegiaren zazpigarren urteurrenerako

Hainbat jarduera probatzeko aukera

Aitor AROTZENA

Udal kiroldegia ireki zela zazpi urte beteko direla eta, otsailaren 28 eta martxoaren 1eko astebururako eskaintza berezia prestatu dute.

Honela, orain bazkide egiten direnak %75eko deskontua izanen dute matrikulan eta 28 euro bertzerik ez dituzte ordaindu beharko (lehen 112,26 euro).

Kirol jarduera ezberdinei dagokienez, otsailaren 28an, larunbatean 10:30etik 11:30era spinning, 11:45etik 12:45era Crosstraining (intentsitate altuko entrenamendua), 12:45etik 13:15era Core, 17:30etik 18:30era Crosstraining, 18:30etik 19:30era spinning eta 19:30etik 20:15era Aquarunning saioak eskainiko dituzte eta martxoaren 1ean, igandean 10:30etik 11:30era

Cardiokickbox, 11:30etik 12:30era Spinning eta 12:30etik 13:15era Aquaerobic. 4 eta 6 urte arteko haurrek ere izanen dute parte hartzeko aukera, igandeko psikomotrizitate saioan (11:30etik 12:30era).

Abonatuak otsailaren 22ra bitarteko epea izanen dute izen emateko doan. Abonaturik ez daudenek, berriaz, otsailaren 23tik 27ra eman dezakete izena, 5 euro ordainduta.

Beti Gaztek urteko batzarra eginen du otsailaren 21ean

Beti Gazte elkarteak larunbat honetan, otsailak 21, eginen du urteko ohiko batzarra, 19:30ean lehen deialdian eta 20:00etan bigarrenean. Iazko akta irakurri eta onartu ondotik, iazko kontuak eta ekitaldiak eta 2015eko ekitaldiak eta aurrekontua aztertuko dituzte. 75. urteurrena, kuotak eta zuzendaritza batzordea berritzea ere izanen dute hizpide.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek

Elkartearen 75. Urteurreneko ekitaldien baitan, lehen aldiz ipuin lehiaketa antolatu du Beti Gaztek. Deialdia arrakastatsua izan da, denera 77 neska-mutikok parte hartu baitute, 49k A mailan (LH 3. eta 4. mailakoak) eta 28k B mailan (LH 5. eta 6. mailakoak). Horregatik, "bai Irain Eskola publikoko baita Tantarumairu ikastolako irakaslegoari lehiaketan izan duten konpromisoa" eskertu nahi izan die Beti Gaztek. Sarietako dagokienez, A mailan, lehenbiziko saria Naia-ra Ubiria Sunsundegik eskuratu zuen *Pirulija sorgina* ipuinarekin, bigarren saria Peio Iturria Pombarrek *Nork banatuko ditu opariak gabonetan?* ipuinarekin eta hirugarren saria Ainara Semper Irastorzak *Sorginak* ipuinarekin. B mailan, lehen saria Olatz Arakues Mikelajauregik lortu zuen, *Sorginak Lesakan* ipuinarekin, bigarren saria Ane Ordoki Telletxeak *Iratxoak herrira* ipuinarekin eta hirugarren saria Izaro Iparragirre Irigoienek *Benetako ipuinak* ipuinarekin. Neska-mutikok bale batzuk jaso zituzten sari bezala. Hauekin irakurketa liburuak barrik eros ditzakete herriko liburutegietan. Elkarteak lehiaketa gehiago antolatzeko asmoa du hurrengo urteetan, Lesakako haurrek irakurketa eta idazketan gero eta gehiago murgil daitezten.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Santa Ageda bezperan kantari

Santa Ageda bezpera ospatu zuten otsailaren 4an Tantarumairu ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleek, aurtengoan ere ikastetxeko txistulari eta atabalariek doinuen laguntzarekin. Herrian barna kalejira ibiltzeaz gain, Andra Mari Zahar Etxekoak ere bixitatu zituzten.

FLASH

Ixabel Millet-en Emoziotegia

Ixabel Milletek *Emoziotegia*, *Emozioen hiztegia* antzezlan eskainiko du otsailaren 28an, 19:00etan Harriandoan. Sarrera euro bat kobratuko da.

Txamukos mariatxia Koskillan

Arantzako inauterietan estreinaldia egin zuen Txamukos mariatxi taldeak emanaldia eskainiko du Koxkillan hilaren 28an, 23:30ean.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorria
lentzeria mertzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

KULTURA → OTSAILAREN 19TIK MARTXOAREN 15ERA

Gema Arrugaeta argazkilariaren erakusketa Madrilen


Taldeko argazki erakusketa ibiltariaz gain, erakusketa pertsonala ere paratuko du ikusgai

Irune eta Itsaso

Etxalarko Gema Arrugaeta argazkilaria Madrilen egonen da "on the movie" argazki erakusketa ibiltariarekin. Tunes, Frantzia, Suitza eta Libanotik pasa da erakusketa eta hurrengo geltokia Madrilgo Lorategi Botanikoa izanen da; otsailaren 19tik martxoaren 15a arte. Europa mailan, sei argazkilariaren artean martxan jarritako era-

kusketa da, eta Mediterraneoko transhumantzia eta naturari buruzkoa. Bertan, Espainiako erreportajea Gemak osatutakoa da eta Extremadura eta Avilako argazkiez gain, Euskal Herrikoak ere sartu ditu.

Taldeko argazki erakusketa honez gain, Gemak bere *Izadiaz-gizadiaz* argazki erakusketa pertsonala inauguratzeko ere aprobetxatuko du Madrileko aukera hau. Madrilen otsailaren 21ean izanen da inaugurazio nagusia eta hau aprobetxatuz Euskal eguna antolatu dute. Otsail erdialdetik aitzinera, argazkiak ikusteko gogoia duenarentzat hantxe egonen da Gema.



ARGAZKIAK: JAIIONE IRIGOIEN

Elurrak mendi bazterrak zuritu ditu

Herri inguruan elur guti egin badu ere, mendi aldeak egun batzuez zuri egon dira. (Arrineko borda inguruko argazkiak)



ARGAZKIA: EITB

Goenkale telesailaren azken atala

Otsailaren 6an Goenkaleko azken atala grabatu zen Miramonen. Atal honetan parte hartzera gonbidatuak izan ziren Elizagoien ahizpak. Goenkale astean behin emititzen denez, badirudi azkeneko atal hau, urte bukaera aldera emanen dutela. Elizagoien ahizpak ageri dira argazkian, Goenkaleko aktore ezagunekin, tartean Iñaki Perurena leitzarra.

Herriko gazteek antolatuta Sagardotegia

Urtero bezala, aurtengoan martxoaren 7an joanen dira herriko

gazteak Hernaniko Iparragirre Sagardotegira. Autobusa 13:00etan aterako da aparkalekutik eta goizaldeko 4etan izanen da itzulera herrira.

Herriko ostatuan eta Elutsan daude listak eta 20 euro jarri behar da izena ematerakoan. Apuntatzeko azken eguna otsailaren 22a izanen da.

ARANTZA

INAUTERIAK → GIRO EDERREAN JOAN DIRA

Txamukos mariatxi taldeak debuta egin du inauterietan

Beñat Mitxelena eta Jon Koldo Arburua taldean ari dira

Nerea ALTZURI

Aurtengo inauterietan Txamukos mariatxi taldeak bere lehenbiziko emanaldia eskaini zuen. Larunbatean, poteoko giroa bideratu zuen eta giro ederra izan zen.

Irailean hasi zen taldea entsaiatzen. Hasieran, helburuak sobera finkatu gabeak bazituen ere, Arantzan jotzeko aukera aterazenez, urte hasieratik ortziral edo larunbatean entsaiatzen aritu dira Lesakako Kultur Etxean.

Sei musikarik osatzen dute taldea eta tartean bi herritar: Beñat Mitxelena akordeoiarekin eta Jon Koldo Arburua gitarrarekin. Bertze taldekideak, berriz: Lesakako Mikel Iriarte eta Xabier Arriola tronpetarekin eta Egoitz Telletxea gitarroiarekin, eta Fernando Otano oibartarra ahotsean.

Mariatxiak jotzen dituzte eta aipatu digutenez, euskarazko bertsoiak prestatzen ari dira. Gerora begira mariatxiez gain, kanta ezagun batzuen mariatxi bertsoiak ere konposatu nahi dituzte. *Norteño* batzuk jotzea ere pentsatua dute.

Herrian hagitz gustura gelditu ziren, emanaldiak harrera ezin hobea izan zuelako. Hala ere, euren emanaldiaz gozatu nahi dutenek bertze aukera Lesakako Koxkilla ostatuan izanen dute, otsailaren 28an, 23:30ean. Aitzinera begira se-guru kontzertu gehiago eskainiko dituztela. Zor-te on!

INAUTERIAK

Neguak bere kolorea eta tenperatura erakutsi ditu aurtengo inauterietan, baina giro paregabea izan da. Mozorro Zuriek eskea ortzegun eta ortziralean egin zuten eta eskolako haur eta gazte txoek ortziral eta larunbatean. Ortzegunean, eskolan mozorroei paperezko



UTZITAKO ARGAZKIAK

Elurrak eta hotzak ez zuten inauterietako giroa zapuztu. Ederki joan ziren hiru egunak.

eta kolorezko bizkarrekoak paratu eta dantzatu ondotik, arratsaldean herri-kirol saio polita eskaini zuten ikasle, irakasle ta gurasoek frontoian.


Ortziral arratsean bertso afaria Aterpean eta emakumeen afaria Bur-ladan egin ziren. Andoni Egaña eta Amets Arzallu-sek 03:00ak arte luzatu

zuten afalondoa eta gero besta Gorape aldera lekualdatu zen.

Larunbat arratsaldean, haur eta gurasoek mozorrotuta kalejira egin zuten trikitilarekin eta ondotik berendua egin zuten. Ilunabarrean, Mozo-rron herri kirol saioa eta aizkora apustu mistoa izan ziren frontoian. Etxez-

etxe edo baserriz-base-ri oparitu edo herrian sal-dutako boletoen zozketa ere egin zuten. Urdaiazpi-koa Exkerrenekobordara, kafe-makina Zakute-nera eta txorigorotza Aientsako Errenteneko-bordara tokatu ziren.

Afaltzen eta afalondoa- an ere giro paregabea izan zen herrian barna.



ARGAZKIA: MIKEL ALTZURI

Elurrak bazterrak zuritu ditu

Ekaitza elurtua zanpatzeko aukera izan dute batek baino gehiagok. Bertatik bertara are politagoa izanen bazen ere, irudia ere gozagarria da.

aterpe
albergea jatetxea ostatua
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

GIZARTEA → ILBELTZAREN 24KO BATZARREAN

Aldaketak egin ditu Biltokik zuzendaritza batzordean

Tania Gonzalez da idazkari berria

TTIPI-TTAPA

Igantzioko Biltoki elkarteak urteko batzarra egin zuen ilbeltzaren 24an eta bertze gaien artean, bi urte eman dituzten batzordeko kideek bere lana utzi eta berriak sartu ziren. Hone-la, Tania Gonzalez da idazkari berria, Josu Larka lehendakariordea, Nerea Bertiz diruzaina eta Iñigo Almandoz, Axun Iribarren eta Naroa Loinaz dira bokal berriak. Mikel Arburuak segituko du urtebetez lehendakari lanean. Orain arte batzordeko kide izan diren Iñaki, Ain-

hoa, Olatz, Julen, Aitor eta Maria Jesusen lana ere eskertu zuten.

Aipatzekoa da larunbat honetan jokatu dituztela mus eta partxis txapelketaren finalaketa ondotik afaria ere izan dutela. Hurrengo alean emanen dugu irabazle-en berri.

Herri kirolak

Igantzioko neska-mutikoez herri kirol txapelketan parte hartuko dute eta aurten ere Irrisarrri Land izenarekin aterako dira. Bi talde izanen dira: kimuen eta haurren kategoriatan talde bana. Proba konbinatuak egin beharko dituzte. Txapelketa martxoaren 1ean hasiko da Al-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Mozorro gazteek inauterietako harat-honatak egin dituzte

Herriarrek bere ohiko harat-honatak eginen dituzte auzoz auzo mozorroturik inauterietan. Ortziralean Berrizaun, bidegurutzte aldea, Frain auzoa, herria, Sarrola eta Lasaga auzoetan eskean ibili ziren gazteak eta larunbatean Irisarri eta Unanu auzoan eta Piedade gainean. Boletoen zozketa egin ondotik ederki afaldu zuten. Larunbat arratsaldean haurrak ere kalejiran ibili ziren.

tsasun, eta martxoko igande guztietan jokatuko da. Finala martxoaren 29an izanen da, Sakanan, eta martxoaren 22ko kanporaketa saioa Igantzin izanen da.

Korrikako bertso afaria

Korrika martxoaren 21ean pasatuko da herri-ritik, arratsaldeko 4ak aldera. Horren inguruan bertso afaria antolatu du Biltokik, Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Laster zabalduko da izen emateko epea.

PROBA BEREZIA ETA GOGORRA

Gladiator's Day eginen dute martxoaren 15ean Irrisarrri Landen

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean ireki zenetik, abentura kirola egiteko aukera eskaini du Irrisarrri Landek, baita mendi bizikletarekin lotutako probak antolatu ere. Martxoaren 15erako berriz, proba berezi bezain gogorra prestatu dute: Gladiator's Day. Oztupoz betetako 5 kilometro terdiko ibilbidea osatuko dute, sua, ura eta lohia protagonista izanen diren ibilbidean. Antolatzaileek dioten bezala, proba bukatzea da garaipena. Gaugergero izen emateko epea zabalik dago, www.rockthesport.com webgunearen bidez eta hau idazterakoan 62 lagunek emana dute izena. Proba 12:30ean hasiko da eta helmuga 14:30ean itxiko da.

Ba al zenekien...

Eguraldiak laguntzen badu otsailaren 19an, ortzegunean eginen dutela eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek zuhaitz landaketa eguna.



URBEN ARKITEKTOAK

ETXEGINTZAN AHOLKULARITZA

ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK

ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATZEA

ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK (ITE)

TELF. 688 88 77 77 estudio@urbanarquitectos.com


URBEN EASO 77 S.L. ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7°. www.urbanarquitectos.com

BORTZIRIAK

GIZARTEA → LA CAIXAREN GIZARTE EKINTZAK

11.500 euroko dirulaguntza eman die Mankomunitateari eta Etxalarko Udalari

Oinarrizko beharrak asetzeko emergentzia poltsa aktibatze eta ingurumenarekin lotutako ekintzak egiteko



UTZITAKO ARGAZKIA

Jokin Apezetxea, Jasone Zelaieta, Migel Mari Irigoien eta Maite Elía, dirulaguntza emateko ekitaldian.

ekintza gauzatzeko. Jasone Zelaieta, La Caixako Iparzonaldeko Negrozio Arloko arduradunak eman dizkio laguntzak Miguel Mari Irigoien, Mankomunitateko presidente eta Etxalarko alkateari. Ekitaldian, Jokin Apezetxea gizarte langilea eta Maite Elía, Etxalarko La Caixako bulegoko zuzendaria ere izan ziren.

La Caixako Gizarte

DATUA

6.500

EURO

Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitateak eskuratu
ditu

Ekintzak emandako 11.500 euroetatik 6.500 Bortzirietako Mankomunitateko programa zehatz batentzat izanen

dira. Erakunde honek, baliabide ekonomikorik ez duten familiendako oinarrizko beharrak asetzeko emergentzia-poltsa bat osatu du. Poltsa honetatik, errate baterako, janaria eskuratzeko edo argindarraren fakturak ordaintzeko laguntzak emanen dira. Horretaz gain, Jokin Apezetxea teknikariak jakinarazi duenez, «persona dependienteendako material ortoprotesikoa eskuratu nahi da eta dibertsitate funtzionala duten pertsonendako hidroterapia zerbitzua eskaini nahi da».

Bertze aldetik, Etxalarko udalak jaso dituen 5.000 euroak Tximista errekan ingurumenarekin lotutako bi ekintza egiteko erabiliko dira. Zehazki, erreka garbituko da eta presako arrainen-eskala jautsi eginen da, uholdeak saihesteko helburuarekin.

IRAKASKUNTZA

238.197 euro
0-3 urteko
eskualdeko lau
ikastetxerentzat

Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak finantzatzeko 5,5 milioi euroko dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak eta bertze 2,3 euro bideratuko ditu besterendutata dauden eta dirulaguntzak jasotzen dituzten zentroetara. Eskualdeari dagokionean, guztira 268.197 euro erabiliko ditu lau ikastetxerentzat: Baztango Haur Eskolak 99.770 euro jasoko ditu, Berako Mukixu Haur Eskolak 53.454 euro hartuko ditu; Leitzakoak 52.722 euro eta Doneztebeko Askin Haur Eskolak 62.251 euro.

GUZTIOK ELKARTEAK ETA OSASUNBIDEAK ANTOLATUA

Haur-elikadura eta eskola-jantokiei buruzko bosgarren ikastaroa abiatu da

TTIPI-TTAPA

Haur-elikadura eta -nutrizioari eta eskola-jantokiei buruzko bosgarren ikastaroa antolatu dute Bortzirietako Guztiok taldeak eta Osasunbideak, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta Bortzirietako udalen laguntzaz. Jantokietako langileei eta jantokien antolakuntzaz arduratzen diren gurasoei zuzendua dago, baina edozein gurasorendako egokia da. Solasaldi

guztietan parte hartzeagatik 30 euro ordaindu behar zen, baina banaka ere eman daiteke izena, 10 euro solasaldi bakoitzeko.

Ikastaroa abiatzeko, otsailaren 11n, *Elikadura osasungarria NAOS estrategiaren ikuspuntutik* solasaldia eskaini zuten Lesakan Rosa Mugica eta Margarita Echaurre, Nafarroako Gobernuko Osasun Publiko sailekoak. Menu egoikiak diseinatzeko erakutsi zuten, pertsonen adina, sexua

eta egoera soziosanitarioaren arabera.

Otsailaren 28an, *Irensteko arazoak eta nahasmenduak* solasaldia eskainiko du Etxalarren Begoña Barceló Sarriák, Malagako haur-garapeneko zentro bateko logopedak eta mota horretako nahasmenduetan adituak. Disfagia, elikadura errefusatzea, gorakoak, berrahoratzea edota elikagaien hausnarketa bezalako arazoei nola heldu azalduko du.

Martxoaren 4an, *Dieta bereziak behar dituzten gaixotasunak* solasaldia eskainiko dute Beran Félix Sánchez Valverde eta Elena Aznal, Nafarroako ospitale-komplexuko pediatrek eta digestioan eta nutrizioan adituak

Martxoaren 18an, *Eskola-jantokien hezkuntza-alderdiak* solasaldia eskainiko dute Arantzan, jantokien funtzioaz, antolaketaz, eta gisako galetaz. Oraindik ez dago erabakia nor izanen den hizlari.

GIZARTEA → OTSAILAREN 11KO BILERAN

Zenbait aldaketa egin dituzte Guraso Elkartearen batzordean

Rakel Urtxegi lehendakaria eta Koro Zelaieta bokala berriak dira karguetan

Maidar PETRIRENA

Guraso Elkartearen bilera egin dute otsailaren 11n. Hainbat gai garrantzitsuri buruz hitz egin zen. Aurreko akta irakurri eta onartu ondok, 2014ko kontuak ere aurkeztu eta onartu ziren, pasatako Eguberriren eta inauterien larburpenak egin ziren, eskola kontseiluko akta ere irakurri zen eta bi urte pasa ondoren juntatik aterako diren bi kideen aipamena ere egin zen. Beraz, hemendik aitzinera Sunbillako Guraso Elkarteko junta honela gelditzen da: Lehendakaria: Rakel Urtxegi, Lehendakariordea: Silvia Martinez, Idazkaria: Nerea Petrirena eta bokalak: Mari Sol Sanchez eta Koro Zelaieta.

Inauterien ondoko lasaitasuna

Inauterien ondok lasai gelditu da herria eta ez da sobera berri kontatzeko. Aipatuko dugu eguraldiak gogor jo duela Nafarroan nola bertze herrialdeetan, baina ekaitz horretatik gure herria libre xamar gelditu dela. Otsailaren 6an ugaldari begira egon ginen ura aterako zen beldurrez, baina dena horretan gelditu zen. Hurrengo astean berriz, elurteak izan ziren. Nahiz eta herrian elurra ia ez dugun ikusi Ulibeltzak Mendi Taldekoek aukera izan zuten otsailaren 8an egindako irteeran elurraz gozatzeko. Guttik egin zuten irteera baina hagitz ongi pasatu zutela jakinarazi ziguten, argazkietan ikus daitekeen bezala.

Elurteen ondorioz otsailaren 8rako aurreikusita zuten San Donato irteera aldatzea erabaki zuten. Irteera hau hurrengo batean egingo dute.



ARGAZKIAK: BIDAL IBARRA

Hotza eta elurra bai, baina ederki pasatu zuten Ulibeltzakoek otsailaren 8an egindako irteeran.


Ba al zenekien...

laugarren urtez antolatu duela udalak inauterietako argazki lehiaketa. Hurrengo alean seguruenik jakinen dugu txapeldunaren izena.



 **6 SARRERA**
ZOZKETATUKO
DITUGU
urtean zehar

BERAKO IGERILEKUA
Julio Caro Baroja 2
31.780 BERA
Telf 948 630 215

 **Urdi Bera**



DONEZTEBE

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK EMANDAKO SARIAK

Erreka elkartea Nafarroako klub onena izendatu dute

Joseba Legarra presidenteak jaso zuen

Marga ERDOZAIN

Nafarroako Gobernuak 2014ko kirolari, kirol talde, federazio, zuzendari eta teknikari onenen sariak eman ditu eta Doneztebeko Erreka elkarteari egokitu zaio kirol klub onenarena. Sari hauek urtero banatzen dira eta horretarako Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko, Miguel Indurain Fundazioko, federazioetako, unibertsitateetako eta kirol prentsako ordezkariak osatutako epaimahaia elkartu zen.

Saria otsailaren 9an jaso zuen Joseba Legarra presidenteak (Txibi Uterga, David Mindegia, Juan Telletxea eta Pablo Elizondo osatutako ordezkariak albon izanda). Oskar Mindegia udal ordezkaria ere bertaratu zen.

Kirol klub onena izendatzeko aipatutako



UTZITAKO ARGAZKIA

Erreka elkarteko ordezkariak gustora, saria jaso ondotik.

epaimahaiak Errekak 1976az geroztik izan duen ibilbidea kontuan hartu du: kirol jardueraren bultzatzailea izatea baita kultur arloko ekimenen bultzatzailea izatearena ere.

Hainbat zorion mezuzidali dizkiote taldeari eta klubak duen blogean bilduak gelditu direla. Batzuk aipatzearen: Ibai Mariezkurrena, Niko Mindegia, Ibai Meoki, Nafarroako Eskubaloiko federazioko lehendakaria...

Gaur egun Errekako gidaritzan daudenek ai-

patzen dute «sari hau jende anitzen lanaren merezitako ordaina dela eta indar handiagoz lanean segitzeko balio duela, gure nortasuna eta kirola ulertzeko mo-

dua aldatu gabe».

Zorionak lainoaren umeak eta heldu den urtean 40 urteko gailurra igotzera, ez da ez, marka makala!

Ba al zenekien...

Manolo Otero maisuak erretiroa hartu duela. Diotenez azken lan egunean motxila bete-betea zeramala agurtu zen. Bertan 40 urteko bizipenak, hainbat eta hainbat ikasleren oroitzapenak, berak korritutako eta antolatutako krosen argazkiak, inauterietako moztaroen argazkiak... sartu omen zituen. San Miguel eskolako irakasle, ikasle, gainerako langile eta Erreka eta Mendaur guraso elkartearen izenean agur bero bat, Manolo. Zorte on oraingo lasterketan!

FLASH

Ate Irekiak Askin Udal Haur Eskolan

Askin Udal eskolak ate irekien jardunaldia antolatu du heldu den martxoaren 7rako (larunbata), 10:30etik 13:00etara. Ekimen honen bidez haur eskola honek 0-3 urte bitarteko proiektua ezagutarazi nahi du heldu den 2015-2016 ikasurteko matrikulazioa bultzatu nahian.

Gure Esku Dago

Doneztebeko Gure Esku Dago ekimenak martxoaren 1ean, igandean, zine aretoan *Jostunak* dokumentala aurkeztuko du aurten go dinamikaren agendaren barrenean. Malerrekako batzordeak martxoan mendi ibilaldiak antolatuko ditu eta apirilaren 25ean egingen den ehuntze egunaren dinamika martxan paratu nahi du.

EH Bilduk

Doneztebar guztiei inkesta bat helarazi nahi die herriko egoera eta beharrak ezagutzeko. Ekarpeneak hauek eta talde eragileengandik jasotakoak erabiliko dira hauteskunde-programa ixteko. Bettezko bi aukera dauka: paperezkoa bete eta Herriko ostatuan dagoen buzoian sartu edo on-line <http://goo.gl/forms/XTLKT6Zsw5> enlazean sartuta.

Korrika badator

19. korrika prestatzen laguntzeko Malerrekako batzorde bat osatu da, kilometroak saldu eta Korrika laguntzaileak lortzeko asmotan. Aurten guretik ez da pasako baina martxoaren 20an Baztandik eta 21ean Bortzirietatik pasako da.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

28 otsaila
DISKOFESTA

00:00 etan
Donezteben

the moment

OSPAKIZUNAK → ILBELTZAREN AZKEN ASTEBURUAN

Inauteri legea bete dute aurten ere gazteek eta ttikienek

Etkez etxeko eskea egin zuten gazteek eta haurrak ere mozorrotu ziren

Joseba URROTZ

Joan zen Ilbeltzaren azkeneko asteburuan, egin zen inauteri garai-ko ospakizuna, ohikoa denez, gehienbat gazte-
en eskutik.

Ortziral eta larunbatean etkez-etxe ibili ziren eskean eta bi egu-

netan afariak ere izan zituzten, besta hauek normalean mahai inguruan akitzen (eta hasten) direlako.

Gainera, larunbat arratsaldean, hurrek ere izan zuten euren tarte, gurasoekin batera mozorroturik elkartu baitziren ostatuan, dantza egin eta berendatzeko.

ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ
Gazteak etkez etxe puxka biltzen ibili ziren asteburu osoan eta haurrak, beraien gurasoekin mozorrotuta atera ziren larunbatean.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

NATURA → MENDIAN BAKARRIK GELDITU DA

Bisita laburra
egin du elurrak

Arkaitz MINDEGIA

Gure herriko xoko honetara elurrak bixita laburra egin du. Eguraldi adituak elurra eginen zutenaren abisua pasatua zuten baina ez dira iragarpenak bete. Mendietan bakarrik geratu da elurra herrian, elurra bota du baina gutti jarri. Haurrek mendietara igo behar izan dute elurra erekin goxatu ahal izateko. Bertze batzuk berri, beheko suaren goxotasunean egin die aurre tenperatura baxuei.

Nafarroako
bertsolari
txapelketa

Martxan dugu aurtengo Nafarroako bertsolari txapelketa. Iruñean otsailaren 7an hasi eta Martxoaren 28an Elizondon bukatuko da eta bertan gure herriko bertsolariak parte hartu eta hartuko dute. Hain zuzen ere Otsailaren 8an Irurtzuneko Kultur etxean jokatu zen biga-

rren final-laurdena eta bertan Alazne Untxalok kantatu zuen. Oso fin eta gustora aritu zen eta saioaz gozatu zuen. Saio horretan Julio Soto izan zen txapelduna baina Alazne laugarren postuan geratu zen puntuazio bikainarekin.

Iker eta Egoitz anaiak berri, otsailaren 21ean kantatuko dute Lizarran jokatu den final-laurdenekoan. Ander Fuentes, Josu Sanjurjo eta Eneko Fernandezekin batera ari dira kantuan. Hurrengo alean Lizarrako saioaren berri emanen dugu eta finalaurrekoetara sailkatu diren izenak ere jakinen ditugu. Zorriker hobereana Gorosterrazu anaiei.

Urrezko aizkoran
ederki

Ander Erasun, Jon Rekondo lagun duela, Urrezko aizkorako txapelketa ederki dabil. Urtarrilaren 25ean Iraetan jokatu zuten Mikel Larrañaga eta Ruben



ARTXIBOKO ARGAZKIA

El Conquistador saioko abenturak atzendu eta Nafarroako bertsolari txapelketa kantatu beharko du Egoitz Gorosterrazuk larunbatean Lizarran, Iker anaiarekin batera.

Saralegiren aurkako saioa eta irabazi ondok aurrera segitzea lortu zuten, semifinalerako txartela lortuta.

Orain, otsailaren 21an Leitzan jokatu den semifinalerako Kañamare eta Jauregiren aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Irabazleek martxoaren 1ean Azpeitian jokatu den finalerako txartela lortuko dute. Zorte on!!

Pulunpa eskola

Neguko azken hila-beteetan sartu garen honetan, denok udaberriaren pentsatzen hasiak gara. Horren harira urteroko zita dute gure herriko eskolan, zuhaitzaren eguna. Aurten otsailaren 21ean ospatuko dute. Bertan, egu-

raldia lagun badute, landareak landatuko dituzte. Bertzalde Korrikaren inguruan ere antolakuntza lanetan dabilta. Korrika ofiziala herriko pasako ez bada ere, Pulunpa eskolan beste edizioetan bezala korrika ttiki eta bertze ekitaldiak burutuko dituzte. Guzti hauen berri aurrerago izanen duzue.

Entrenatzen fuerte

Gure herriko BTT-ko txirrindularia entrenamenduetan hasia dugu denboraldia indartsu eta gogotsu hasteko. Hain zuzen ere martxoaren 1ean izanen du bere lehenbiziko karrera, Chelvan (Valentzia), Caja rural Superprestigio MTB izeneko openean.

Maurixio etxean

El conquistador del fin del mundo programan zegoen Egoitz Gorosterrazu *Maurixio*, baina jadanik etxean dugu. Bere taldeak galdutako ondok, nominatu zuten eta duela ez zuten irabazterik izan. Ondorioz, etxerako bidea hartu zuen. Debatera ere gonbidatu zuten eta sarrera ederra egin zuen, Joaldunetz jantzia.

Bertsojazz bazkaria

Otsailaren 21ean Garesen ospatuko den Bertsojazz bazkarian Alazne Untxalok abestuko du, Oskar Estangarekin batera. Oso bazkari berexia izanen da eta seguru abeslariak ere ongi pasatuko dituela.



ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7 - 1
31770 LESAKA
T. 948 635 458
www.ttipi.net
info@ttipi.net



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

* produktua agortu arte

eta

ttipi-ttapa aldizkaria duan + 39 dendetan deskontuak + hamabostero zorke eta izugarriak dertu eta informazioa eskatu

GIZARTEA → GURASOAK, UDALA ETA MALERREKAKO HERRIETAKO ESKOLAK KEXU

Hezkuntza Departamentuak orain zortzi ikasle eskatzen ditu eskola irekitzeko

Emandako hitza ez du bete eta ezin izanen da heldu den ikasturtean berriz ireki

Fermin ETXEKOLONEA

Urtebete zeramatzen Zubietako gurasoek eta Herriko Etxeak lanean berriz ere eskolako atak irekitzeko. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentutik aipatua zuten irekitzeko aukera bazela, bost matrikula izanez gero. Aspaldirako lortuak ziren bost matrikula horiek 2015-16 ikasturterako, baina orain bost ez direla aski, zortzi behar direla aipatu dute. Hurrengo urteetan jarraitzea ere eskatu zuten Iruñetik eta 2016-17 ikasturterako lau haurren matrikulaziorako idatzizko konpromisoa emana zen. Baina hauek denak ez dituzte kontuan hartu eta egoera aldatzen ez bada, heldu den ikasturtean ere herriatik kanpo ikasi beharko dute Zubietako



ARGAZKIA: ERNESTO DOMINGUEZ

Apezaren etxea saldu egin du Artzapezpikutzak

Artzapezpikutzak Nafarroa osoan bere izenean jarri zituen eraikinetako bat da Apezaren Etxea. Lehendik bazen susmoa eta orain jakin da saldu egin dutela. Valentziarrak omen dira erosleak. Jendea haserre dago jokabide honekin, dena isilpean eta herritarrak kontuan hartu gabe egin baitute.

haurrek, Iturenen eta Donezteben.

Ikuskari bat bidali zuten eskola zer baldintzatan zegoen eta zer obra behar zituen ikustera, eta nahiko iritzi ona eman zuen. Beraz, bazen berriz eskola irekia ikusteko itxaropena, baina orain zapuztu egin dute. Aurrematrikulazio garaia hurbiltzen zela

eta seinalerik ematen ez zutelako deitu zuten udaletxetik Iruñera. Aurrematrikulazioa hasi baino hiru egun lehenago ezetza telefonoz jakinarazi zion David Herreros zuzendari nagusiak alkateari, uztailean emandako irizpideak aldatu zirela esanez. Gai honek ere haserre piztu du herrian. Udalak ere

ahobatez onartua zuen eskola berriz irekitzea eta aurrekontuetan diru-sail bereziak onartuak zituen eskolarako, Iruñetik eskatu bezala, baina azkenean deus ere ez.

Malerreka herrietako eskolek ere bere haserre agertu dute Hezkuntza Departamentuaren erabakiare-

kin, idatzi baten bidez Zubietako eskola irekitzea eta Hezkuntza Departamentuak eskolak irekitzeko ezartzen dituen irizpideekin ez jolas eta seriotasunez lan egitea eskatu dute. Gogorarazten dutenez, Nafarroako Parlamentuak Landa Eremuko Eskolen aldeko Dekalogoan onartu eta sinatu zuen eta bertan hartutako konpromisoen artean, "ikasle kopuru zehatz bat heltzean, eskolak ireki edo berririki herriak eskatzen bado eta ikuspegi ekonomizistak baztertuz, herriak bizirik mantentzeko, eskolak zerbitzu publiko gisa ulertu eta etekin ekonomikoen gainetik beharrezkoak diren inbertsioak egitea" ageri ziren.

Heriotza

Amolatxeko Maximo Aranguren hil zen otsailaren 2an, 87 urte zituela. Goian bego. Dolu minak Mertxe Arbelaitz alargunari eta bere seme Joxe Migel, Ixabel errainari eta Juliana bilobari.

'BABES POLITIKOA HASSANARENTZAT, SAHARA SAHARARENTZAT'

Saharako Errepublikaren Eguna ospatuko dute Donezteben eta Zubietan otsailaren 27an

TTIPI-TTAPA

Babes politikoa Hassanarentzat, Sahara sahararentzat! goiburupean Saharako Errepublikaren Eguna antolatu du Saharaztanek Donezteben eta Zubietan otsailaren 27rako.

Heldu den ortziral arratsaldeko

7etan elkarretaratzea egingen dute Donezteben eta 20:00etan Zubietako estalpean dokumentala eta hitzaldia eskainiko dute. 21:00etan afaria izanen da. Afarirako txartelak 7 eurotan salgai daude, 666 264116 telefonon.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hassana Aalia, Euskal Herrian bizi den Saharar iheslariari Espainiak asilo politikoa ukatu diola salatuz, 40 bat pertsonak Elizondoko plazan elkarretaratzea burutu zuten.

Landiflor
Loredenda

Udaberria dator, presta zaitez!

Aukera paregabea Landiflor loredendan



Eskaintza zabala denboraldiko loreetan, landareetan...
Eta baita fruta arboletan ere.
Lore ontzi, lur ongari eta lorategi osagarriak zuen esku.



Landiflorren ere Venta Peio fideltasun txartela erabili daiteke.

Landiflor zure loredenda egunero irekia:
9.30 - 12.30 / 13.30 - 19.00

Barrio Dantzarinea 31712 URDAZUBI
landiflor@ventapeio.com



DANTXARINEA IBARDIN VALCARLOS BEHOBIA

WWW.VENTA-PEIO.

☎ 0820 562 267 (FR) ☎ (+34) 902 210 800 (ES) (EXT: 612)

LOREAK ETA LANDAREAK

GOMENDIOAK

Balkoi, terraza eta lorategiak udaberriz janzteko garaia da!

Neguari hilabete pasatxo gelditzen zaionean, udaberri usainean hasten gara eta horrekin batera urte sasoi berrirako etxe-inguru, balkoi eta terrazak nola apaindu pentsatzen hasteko tenorea iristen da. Garrantzitsua da loreak eta landareak aukeratu aurretik abiapuntu batzuk argi edukitzea: eguzkiak zenbateraino jotzen duen eta ze haize-korronte nagusitzen diren eta baita norberaren eskarmentua ere.

Zer egin kanpoko loreak ondo hazteko

Loreak argira egiten duenez, komeni izaten da landareak norabide egokian jartzea. Batzuk laiotza nahiago dute, besteek egutera. Ura ere bota behar zaie; zenbat eta nola, hori eguraldiak agintzen du askotan, baina loretan badaude, ur gehixeago behar izaten dute. Kimatu ere egin behar izaten dira dauden tokira egokitzeko, edo nahi dugun tamaina har dezaten. Uda-udaberriari ongarria behar dute. Eta lur berean luzaro iraunez gero, ongarri gehiago beharko dute eta aldiro lurraren gaina harrotzea.




Terraza edo balkoiaren orientazioa

Eguzkiaren indarrak eta haize-korronteek asko baldintza dezakete landarearen bizi-raupena. Lekua eguzkitsua bada eta loreak jarri nahi izanez gero, petuniak, arrosak, ziniak edo krabelinak jartzea gomendatzen da. Ezpela oso gogorra da eguzkitan jartzeko, baita beste zenbait landare usaindun ere: ezkaia edo izpilikua esate baterako. Itzal handiko lekua bada, oso egokiak dira fuksiak edo begoniak, hortentsiak, udaberri-loreak, ziklamenak edo baltsamina arruntak. Huntza ere aski ongi hazten da leku itzaltsuan.



Zuhaixkak eta landare igokariak

Heskaia oso egokiak dira urte osoan balkoi, terraza edo lorategiak berde kolorez apainduta edukitzeko. Gogortxu izeneko landareak irmo eusten dio edozein eguraldi aldaketari. Evonimus esaten diotena ere oso aproposa da hesi txikiak jartzeko. Landare igokariak jartzea ere bertze aukera bat da, espazioa mugatu eta intimitatea lortzen baita. Adibidez, glizina pergoletan jartzeko aproposa da eta mahatsoondo arrunta ere aukera ona da oso azkar hazten delakoa.



BAGOAK LORATEGIA-EGURRA



Errekako karrika, 28 · 31700 ELBETE · T. (+34) 678 128 996 · bagoak@outlook.es



Leku-Eder, Bustitz · 31791 SUNBILLA
altzuris@yahoo.es · T. 948 450 504
M. 659 867 287 · 699 461 394

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

SU EGURRA ETA
PIKETEAK SALGAI

Carlos Txoperena

mendi garbiketak eta landaketak
ITXITURAK



Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA



Ingurumen Zerbitzuak

- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreselaieta@hotmail.com



“TELLETXEA”
Lorazaintza

Paisajismoa
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak

Kimaketak
Mantentzea lanak



John Telletxea
Nekazal Ingeniari Teknikoa
Otxangoko Industriaidea, 18. industria-nabea
31770 LESAKA (Nafarroa)
T. 619 418 683 - F. 948 637 049
johntelletxea@hotmail.com

www.telletxealozaintza.com

MALERREKA

GIZARTEA → GARAI BATEKO PAPERAK

Ezkurrako historiaren istorioak paper gainera ekarriak

1606an ordenantza onartu zuen Udalak

Fernando ETXEBERRIA

Gehienetan albisteak eta berriak bidaltzen ditugu ttipi-ttapa, herri bakoitzeko gaurkotasetako kontuak, baina tarte gure arbasoen aipamena ere egiten dugu. *Ezkurra, herri berezia* liburuan bilduak daude horietako asko, baina datu berriak ere sartuko ditugu noizbehinka, gaur egungo jarduekin batera.

Honela, 1606ko

martxoaren 29an udaletxea bildu zen, konzertal eta juradoekin, ordenantza bat zehazteko, "ordenanza para el buen gobierno de la república de Ezcurra". Horretarako, etxe bakoitzetik gizaseme batek joan behar izan zuen, ezkilen deiar erantzunez. Interes ekonomikoa nahiz etiko-erlijiosoak zuten bi gai zeuden eztabaidagai. Udaletxeak lanean segi ahal zezan, diru-sarrera nahiko izan behar zuen eta sarrera horiek basoaren aberastasunetik zetozen gehienbat. Beraz, ordenantza horietan udaletxearen baimenik



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Xuri eta eder gelditu dira bazterrak.

gabe etxeak egiteko edo zaharbertzeko haritzak moztea debekatu zen. Isuna, udaletxearen eta salaketa jartzen zuen juradoaren artean banatuko zen, erdibana. Bortarako taulak ere ezin zitezkeen egin, ezta sua ere belarra edo zuhaitzak zeuden tokietan. Herri-lurretan ezin zitezkeen iratzerik moztu iraila bitarte eta aurrez udaletxeari baimena eska-

tu behar zitzaion. Benezan partikularrak zirela egiaztatu arte ezin zitezkeen lur-eremurik hesitu. Edozein salmenta egiterakoan, produktua pisua eta neurria kontuan hartu behar zen, salmentaren zati bat udaletxeari ordaindu behar baizitzaion. Azkenik, elizkizunak ospatzen ziren bitartean ostatuan jolasean aritzen zirenen gehiegike-

riak saihesteko, erabat galarazi zuten mezak irauten zuen bitartean jendea tabernan egotea. Tabernetako nagusiek herrikoak nahiz kanpotarrak ateraz behar zituzten, bestela isuna ere jaso zezaketen. Garbi dago garai haietan udaletxeak eta elizak harreman handia zutela, ordenantzan halako gai erlijiosoak sartzeko.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA ITURRALDE

Giro ederra Beintza-Labaiengo inauterietan

Elurrari eta hotzari aurre eginez, igaro dira aurtengoan ere Beintza Labaiengo inauteriak. Otsailaren 6an, ortziralarekin eman zioten gazteek hasiera ostatuan afari batekin. Hurrengo egunean, herrian barrena ibili ziren etxek etxe puskek jasotzen kordionaren laguntzarekin. Aldi berean, haurrak eta gaztetxoak ere inauteriak ospatu zituzten Beintzako ostatuan bazkari eder batekin. Menua honakoa izan zen: fritoak, zopa, oilaskoa eta postrea.



ARGAZKIA ETA TESTUA: FERNANDO ETXEBERRIA

Donostialdean aritu diren taxistak Saldiasen

Donostian taxista lanean aritutako 20 bat jubilatuko bildu ziren Saldiasen, bere lan denborako kontuak gogoratzeko. Donostian lan egin arren, gehienak sortzez inguru honetakoak dira, Ezkurra, Leitza, Lekunberri, Oiz, Azkarate, Etxarri, Lakuntza... Bere lanbidearekin lotutako oroitzapenak berritzeaz gain, bazkari ederra egin zuten Saldiasko ostatuan eta kantuan eta musean eman zuten bazkalondoa.

GIZARTEA → OTSAILAREN 21EAN

Larunbateko kontuen egunak bukaera emanen die aurten ere inauteriei

Los Webotes taldea izanen da Gaztetxean festa eguna borobiltzeko

TTIPI-TTAPA

Aldizkari hau esku artean duzuenarako pasatuak izanen dira inauterietako ospakizunik gehienak, mozorroen baserriz baserriko ibilaldiak, zahagi dantzak, eskola *brasildarraren* dantzak eta umorea eta gainerako herritarren disfrazak eta karrozak. Baina, ohi bezala, mozorroen kontuen eguna geldituko da karnabalen ondoko larunbaterako.

Otsailaren 21ean, 12:00etan poteoa eginen dute Igandea txarangarekin. 14:00etan

bazkaria izanen dute eta bazkalondo luzearen ondorik, arratsaldean beriz ere poteoan ibiliko dira Igandea txarangarekin. Gauean, Los Webotes taldea ariko da Gaztetxean, eta seguruena, batzuentzat goizaldeko ordu txikietan bukatuko dira, orain bai, inauterietan lotutako ospakizunak.

Traktore eta ziklomotoeen azterketa teknikoa

Traktoreen eta 49 zentimetro kubiko bitarteko ziklomotoeren azterketa teknikoaren kanpaina dela eta otsailaren 20an, ostiral goizeko 10etatik 13:45era jarriko dute tailer ibiltaria Irisarriko pilota planan. Bando bidez eman du Udalak honen berri.



UTZITAKO ARGAZKIA

Maskulinitate berriari buruzko solasaldi interesgarria

15 bat lagun elkartu ziren maskulinitate berriari buruzko solasaldian eta oso gustora entzun zituzten Xabi Arakamak berak parte hartzen duen "Gizonenea" taldeko esperientziak. Besteak beste, sexismoak gizonetzoei ere zer nolako zapalkuntza ezartzen dien ohartu ziren eta zein garrantzitsua den eredu maskulino berriak zabaltzea, gizon eta emakumeen berdintasun bidean.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Santa Ageda bezperan kantari

Santa Ageda bezperan 40 herritar inguru atera ziren kalez kale eta tabernaz taberna santa eskean. Hauen artean, bertsotan aritu ziren Josu Garmendia, Esteban Arozena, Fernando Goia eta Igor, trikitixarekin Garazi, Olaia eta Aizpea eta panderoa jotzen Janire. Elurra ere bidelagun izan zuten.

Bilatu zure bilketarako tokia www.carneecologicanaavarra.com on-line dendan.

Arkumea, txahal eta moxal lote ekologikoak, zuzenean zure etxera, bitartekaririk gabe.

Bertatik bertara bizi nahi dugulako

trigolimpio

635 715 038 · Garralda - Bera - Saragueta - Aribe - Orontze

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

IRUÑA: Julian Gayarre 24 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

LEITZA

HOBEKUNTZAK → GARRAIO PUBLIKOAREN INGURUKO IKERKETA ERE MARTXAN

Herritarren eskariei erantzunez neurriak hartzen ari da udala

Begizta magnetikoak jarri dituzte zine eta eskolan

JM BARRIOLA

Lehengo udaberrian udalak gerakinetatik 50.000 euro zertan inbertituko lituzketen galdetu zien herritarrei. Hainbat eskaera eta kezka utzi zituen agerian parte hartze prozesuak eta orain udalak eskaeratako bat aurrera atera eta entzumenekin arazoak dituztenei laguntzeko neurriak hartu ditu. Hala, zineko aretoan eta Erleta eskolako jangelan



ARGAZKIA: ARANTXA IPARRA

Herritarrek garraio publikoaren inguruan dituzten premiak ezagutu nahi dituzte.

eta ingeleseko gelan begizta magnetikoak jarri dituzte. Gailu hauek audiofono batera audio-seinale bat zuzenean trans-

mititzeko aukera ematen dute, inguru-zaratak sortutako interferentziarik gabe, komunikazioa hobezea lortuz.

GARRAIO PUBLIKOAZ

Bestalde, garraio publikoan dauden gabeziak aztertzeko asmoz, ikerketa bat ere abiatu du Udalak. Horretarako lehen fasean hiru bilera egin dira, otsailaren 10, 11 eta 12an. Bilera hauetan Iter Investigación enpresako adituak adin desberdinetako herritarrekin bildu dira. Jendearen iritziak eta ikuspuntuak jaso nahi dira eta horretarako elkarrizketak, inkesta pertsonalak... egitea aurreikusuten dute. Horrela herritarrek adierazitako kezka irtenbidea eman nahi dio udalak.

HITZALDIA

Ohiko bankuen alternatibei buruz Atekabeltzen

Kontsumo Taldeak hitzaldia antolatu du otsailaren 19an, arratsaldeko 7etan Atekabeltzen. Koop57 EH-ko Lier Gonzalez eta Fiare-ko Beñat Irasuegi izanen dira hizlariak eta ohiko bankuez aparte gure diruak eta aurrezkiak antolatzeke ze modu dauden azalduko digute. Zerbitzu finantzarioak eskaintzen dituzten ez-ohiko erakundeen egitekoa azalduko dute, nola ekonomia soziala, banku etikoa... irabazi ekonomikoaren gaitetik jartzen dituzten. Gaiaz gehiago jakiteko etorri hitzaldira!



ARGAZKIA: ARANTXA IPARRA

Elurteekin gozaten

Pasa den ekaitzak ohiko arazoak eta paisai ederraz gain, elurarekin gozatzeko aukera bikaina eman du. Dozenaka izan dira gure mendietan ibili direnak bai ibilbideak osatuz eta baita eskiatzen ere. Eskiatzaileak, Leitzako mendi garaiena den Eguzkizko-muñoa inguruetan ibili dira. Oso elur ona izan da beraiantzat, elur-hautsa eskiekin irristazeko hoberena dena, beraien ahotan. Udalak eskerrak ere eman nahi dizkie herriko suhiltzaile boluntarioei egin duten lanagatik, bi istripu izan ziren egun horietan eta beraiek ibili ziren erreskate lanean aurreko muturrean.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Santa Ageda bezpera ospatu zen

Ohitura zaharrari jarrituz, dozenaka haur eta gaztetxo ibili ziren eguardi artean kantu kantari eta eskean herritik barrena. Arratsaldean baserrietara joateko denbora izaten da eta ausartenak halaxe ibili ziren. Beste urte batez, Leitzako Kultur Taldeak antolatuta, 18:30ean hasi eta herritar kuadrila bat, kalejiran ibili zen trikitalari eta bertsolarien laguntzarekin. Aurreko urteetan baino herritar gutxiago hurbildu baziren ere, hotz handiari aurre egin eta karrapean mokadutxoia eginez bukatu zuten kalejira.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Sabino Cuadraren hitzaldi jendetsua

Otsailaren 5an iluntzeko 19:30etan "arjado a los leones" liburua aurkeztu zuen Sabino Cuadra parlamentariak. Herritar ugari bertaratu ziren Torrean izan zen ekitaldira eta bere bizipenak eta hausnarketak entzun eta galderak egiteko aukera izan zuten. Ekarrirako liburu guztiak saldu zituen egunean bertan. Harrera Elkarteari eskaini dizkio liburuarekin lortutako etekinak.

KULTURA → TALDEAN IRAKURZALETASUNAZ GOZATZEKO

Irakurle taldea martxan jarri nahi du Euskara Taldeak

Izen-ematea
martxoaren
14ra arte

Juana Mari SAIZAR

Euskara taldeak dinamika berri bat jarri nahi du martxan herrian, irakurle talde bat osatzea hain zuzen. Irakurtzea gustuko duzu? Eta irakurritako horretaz lagunarekin edo ondoakoarekin hitz egitea? Hala baldin bada izanzen duzu aurrerantzean horretarako aukera, urrutira joan gabe, herrian bertan. Interesa dutenek, Euskara taldeak Sastinean jarri duen orrian eman dezake izana. Izen ematea martxoaren 14ra arte egin ahalko da. Gero izena ematen duten guztiekin bilera bat egiteko as-



UTZITAKO ARGAZKIA

Izar Alguero zinema munduan bidea egiten

Izar Alguero herritarrak pasa den urtean *Entre el agua y la tierra* pelikulan parte hartu zuen, bera protagonistetako bat izanik. Hori gutxi balitz aurtengo Goya sarietan pelikula aipatu da eta galan zehar pelikulako irudi batzuk ere bota zituzten, "El cine que viene" atalean, eta noski, gure herritarra ere bertan agertu zen. Zorionak! Ez da makala herriko antzerki taldean lanean hasi eta horren denbora gutxian Goya sarietan agertzea. Ea zortea izaten jarraitzen duzun Izar!

moa dute, denen artean irakurle taldearen funtzionamentua, maiz-

tasuna eta antolamendua orokorrean zehazteko. Animatu zaitzete

probatzera, oso esperientzia polita izan liteke eta.

UDAL ETA ERAGILEEK

Korrikaren alde hiru kilometro erosi dituzte

Juana Mari SAIZAR

Korrikaren 19. edizioa antolatzeke lanak aurrera doaz eta sarri iritsiko da gurera euskarren aldeko lasterketa. Aurtengoan ere aresoa- rrek beraien puxka jarri dute korrikari laguntzeko. Norbanakoen aportazioez gain, hiru kilometro erosiko ditu herriak: bat udalak, bestea Lagun Arteko- ek eta bestea herriko eragile ezberdinek: antzerki taldeak, eskolak, Guraso Elkartek... martxoaren 21 goizaldean pasako da, goiz- zeko 5k aldera Leitza- tik Berastegira bidean eta seguruenik tarte horretan izango dira gu- re kilometroak. Ze- haztuko dugu hobeto datorren alean. Dena dela hainbeste kilome- tro korrika egiteko en- trenamentuak egiten ere hasi beharko dugu!



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

BAZTAN

GIZARTEA → OTSAILAREN 28 ETA MARTXOAREN 1EAN

Stock Feria antolatu du Bertan elkarteak Elizondon

Elkarteko 16 komertzio eta zerbitzuko parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Bertan, ostalari, merkataria eta zerbitzuen elkarteak, aukeren azokaren edizio berri bat antolatu du otsailaren 28 eta martxoaren 1erako, Baztango Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Feria Elizondoko pilotalekuan izanen da, larunbatean 10:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 19:00etara.

Bazkide hauek parte hartuko dute azokan: Ipingeri arropadenda, Benar ileapandegia, Piko piko, Arrikulunka kirolak, Baztango sotopilek, Izeta ordulari denda, Pottoki, 3Dekorama Design, Fantxike arropa eta opari denda, Kattalingorri arropa denda, Virgilio oinetakoak,

Argibel Optika, Iparla Kirolak, Nafarpress liburudenda, Zangue zapata denda eta Autxitxia Gasnategia.

Baztan erreka eta uholdeak foroan

Baztan erreka eta uholdeak gaiari buruzko eztabaida-foroa antolatu du Udalak otsailaren 19an, ortzegunean 19:00etan Balleko Etxeko Batzar aretoan.

Hizlarien artean, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren ordezkariak; Noemí López eta Felipe Román, Kantauriko Ur Konfederazioko ordezkariak; Iñaki Antigüedad, Euskal Herriko Unibertsitateko hidrogeologiako katedraduna; Camino Jaso, biologoa eta erreka eta ur aferetan aditua eta Julia Ibarra, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea, erreka eta ur aferetan aditua izanen dira.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Euskadiko rally txapelketa irabazi dute Oteizak eta Berhok

Ornoz-Mugairiko Gorka Oteiza 27 urteko pilotoak eta Imanol Berho 28 urteko kopilotoak Euskadiko Rally txapelketa irabazi dute, 1 dibisioan. Otsailaren 8an jaso zuten saria Durangon. Citroen Saxo bat gidatuz, 9-10 karreretan parte hartu dute eta horietatik lau irabazi. Kategoria guztietako sailkapen orokorrean laugarren izan dira Oteiza eta Berho. Martxoan hasiko dute sasoi berria.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elurteari aurre egiteko belarra banatu du Ehiza Elkarteak

Elurtea dela eta, otsailaren 7an mendietako orein eta orkatzei belarra botatzen aritu ziren Baztango Ehiza eta Arrantza elkarteak, Nafarroako Ehiza Federazioaren laguntzarekin. Lehen aldia da honelako ekimen bat egiten dutela Baztango ehiztariek eta 22 fardo belar banatu zituzten Almandoz, Berroeta, Orabidea eta Irurritako mendietan.

URTARRILEAN ABIATU DA ERRATZUN ETA HILERO HERRIZ HERRI EGINDA

'Baztango herriek ere dispertsioari ez' dinamika

TTIPI-TTAPA

Baztango herriek ere dispertsioari ez dinamika abiatu da, euskal preso politikoek eta beren familiek pairatzen duten dispertsio politika salatzeke. Herriz herri eta hilabetez hilabete egindako ekimen ibiltaria da. Urtarrileko hitzordua Erratzun izan da.

Urtarrilaren 30ean *Dispertsioaren bizi-*

penak solasaldia eskaini zuten eta Gari Garaialde argazkilariek *Zu ikusteko bidean* lana azaldu zuen lixutegian. Ondoren, presoen familiarrek beren esperientziak eta kezak azaldu zituzten.

Urtarrilaren 31n *Baztango herriek dispertsioari ez!* lemapeko elkarretaratzea egin zen plazan, Guardia Zibilaren patruila batek ekitaldia zelatatzen zuela.



UTZITAKO ARGAZKIA

30 bat lagun bildu ziren Erratzuko plazan.

Hurrengo hitzordua Arraiozen izanen da otsailean.

GIZARTEA → OTSAILAK 21-27 ETA MARTXOAK 7

Ekonomia ikastaroa antolatu du Hazitik Hozie lan taldeak

Alejandro Arizkun NUPeko ekonomia irakasleak eskainia

TTIPI-TTAPA

Hazitik hoziek, Baztango tokiko garapenerako lan-taldeak ekonomia ikastaroa antolatu du. Alejandro Arizkun Cela, Nafarroako Unibertsitate Publikoeko ekonomia irakaslearen eskutik hiru saio eginen dira, otsailaren 21ean, otsailaren 27an

eta martxoaren 7an Arizkunenean, 11:00etatik 13:00etara. Izen ematea urrik egiten ahal da hazitikhozie@gmail.com helbide elektronikoan.

Otsailaren 21ean *Zientzia ekonomiak zer erakusten eta zer ezkututzen digu?* galderari erantzuten dio Alejandro Arizkunek. Otsailaren 27an *Krisi ekonomiko bat dago edo elkar gurutzaturiko krisi aunitz?* izanen da erantzun beharreko galdera eta martxoaren 7an *Hazkunde ekonomikoari buruz alternatibarik ba al dago?*

IRAKASKUNTZA → GAI EZBERDINEI BURUZ

Hitzaldiak Elizondoko Lanbide Eskolan

Arras ongi baloratu dituzte ikasleek

TTIPI-TTAPA

Elizondo Lanbide Eskolako ikasleak eta irakasleak bigarren ebaluazioan erabat murgilduta daude. Azken aste hauetan, Goi Maila-

ko Finantza eta Enpresen Administrazioa ikasleek eta baita Erdi Mailako Kudeaketa Administrazioa ikasleek ere gai ezberdinetako adituak entzuteko aukera izan dute.

Alde batetik, urtarilaren 20an, Jorge Casado Sorozabal Finantza aditua izan zuten es-



UTZITAKO ARGAZKIA

IK erakundeari buruzko gualdia Erratzuko elkartearen

IK (Iparretarrak), ipar Euskal Herriko erakunde politiko armatuari buruzko informazio gualdia iragan zen otsailaren 6an eta 40 bat lagun elkartu ziren Erratzuko elkartearen. Lehen zatian Sylvie Garatek egin duen dokumentala hedatua izan zen: *Génération autonomistes basque*, euskarazko azpittuluekin. Bigarren zatian, IK erakundearen militante izan diren Filipe Bidart eta Panpi Sainte Marie etorri ziren publikoaren galderei erantzuteko. Publiko interesatu eta partehartzaileria izan zen gualdian. Filipe eta Panpi Erratzura etorri diren bezala, prest dira bertze herritarra joateko ere dokumentala ahal bezainbat hedatua izan dadin eta ipar Euskal Herriko historia ezagutarazteko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Laxoa Elkartearen mila euroak berriz ere Mikel Iparragirrentzat

Joan de abenduaren 20an Irurritako Aranabia pilotalekuan Paxaka txapelketako finala jokatu ondoren Laxoa Elkartek urtero antolatzen duen 1.000 euroren zozketa egin zen. Pello Obregozo Irurritako alkateak bi boleto atera zituen: 0754 zenbakia eta ordezkoa 0365. Lehenbizikoak urtarilaren 10a arteko epea zuen saria jasotzeko, baina ez zuen inork boleto hori aurkeztu eta, beraz, ordezkoa indarrean sartu zen. Ordezko zenbakia Mikel Iparragirre elizondarrak aurkeztu zuen eta, beraz, bera izan da 1.000 euroko saria eskuratu duena. Saria Aranabia pilotalekuan eman zion Tiburzio Arraztoa Laxoa Elkarteko lehendakariak. Laz ere Laxoa Elkarteko mila euroak Mikel Iparragirrek jaso zituen.

kolan. Honek merkatu eta finantzei buruzko solaslaldi zabala eta interesgarria egin zuen. Bertetik, urtarilaren 30ean, Gorka Lakuntza

izan zuten bisitari, eta honek berriz, Enpresen sustapena eta ekimenaren inguruan hainbat ezagupen orokor eta bi- zipen pertsonal trans-

mititu zizkien ikasleei. Ikasleek arras ongi baloratu zituzten hitzaldiak, ikasgelatik kanpo dagoen errealitatea gerturatu baitzitzaizen.

BAZTAN

GIZARTEA → OBRA BAIMENA JASO DU

Geiser Pharmak 30 lanpostu sortuko ditu Lekaroz kanpusean

2016 urte
hondarrerako
hasiko litzateke
lanean

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Campusean Geiser Pharma enpresak plazaratutako berriaren inguruan Udal Gobernuak uste du berrri ona dela baztandar guztiendako eta lanean segituko du «ingurugiroa errespetatzen duen garapen integral eta egonkor bat bultzatzearen alde», otsailaren 6an egindako agerraldian jakinarazi zuenez.

2014ko abuztuan Geiser Pharmak eta Sodenak (Nafarroako Gobernuako enpresa publikoa), Udalarai jakinarazi zioten Lekarozko Campus enpresarialean medikamentuak fabrikatzen dituen planta bat jarri nahi zutela.

Planteamendua aztertu ondoren Udal Gobernuak proiektuarekin adostasuna erakutsi zuen herriarentzat jardueira ekonomiko egokia dela ikusten duelako eta lanpostu berrien sorrera egonkorra suposatzen duelako (30 lanpostu inguru aurreikusten ditu enpresak). Georotik Udala, enpresa eta Nafarroako Gober-

nuko enpresa publiko ezberdinekin elkarlanean aritu da, proiektu honi lehentasuna emanez, aitzinera atera ahal izateko. Lan honen guztia- ren ondorioz, enpresari hasierako obren baimena eman zaio eta otsailaren bukaera aldean eraikinaren obrekin hastea aurreikusten da.

Akitzeko, Udal Gobernuak aipatu du «espedientea ohikoa baino korapilatsuagoa izan dela Lekarozko Campusa bere garaian Nafarroako Gobernuak Udalez Gaiendako Proiektu Sektoriala bezala tramitatu zuelako».

ZAZPI MILIOI EUROKO INBERTSIOA

Geiser Pharmak 7 milioi euro inguruko inbertsioa egingen du Lekarozen, 4.000 metro kuadroko lantegia egiteko (bigarren fasean 7.000 metrora zabal daiteteke). 2016 urte hondarrerako lantegi berri lanean hastea eta urtean 15 milioi unitate sendagai ekoiztea espero dute. Lehen fasean Europako merkatura bideratuko litzateke produktioa, bezeroen %80 bertakoa baitu enpresak eta bigarren fasean, bizpahiru urtetan Estatu Batuetako merkaturako ekoiztuko litzateke.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Oinezen aldeko pilota jaialdi arrakastatsua

Elizondoko Baztan frontoian, Nafarroa Oinezen egitarauaren baitan antolatutako pilota jaialdi arrakastatsua izan zen otsailaren 7an. Txistu doinuak jaialdiko hasiera eta tarteko momentuak ere girotu zituen. Hasteko, Laxoa Elkarteko pilotariek paxaka partida eskaini zuten: gorritz, Gorka Urtausun, Jon Sansiñena eta Juan Mari Maiak osatutako taldea eta urdinez, Iñaki Etxandi, Egoitz Prim eta Joseba Urtausun iruritarrek osatutakoa. Jokaldi ederrak eta borrokatuak izan ziren partidak eta hondarrean, urdinen taldeak irabazi zuen. Ondotik, eskuz bina-kako partida izan zen. Txaruta pilota eskolako pilotari gaztetxoek, bi aldetera paratuta harrera egin zieten lau pilotariei. Oronoz-Mugairiko Mikel Goñi eta Iñaki Otxandorena pilotariek osaturiko bikoteak, Asier Olaizola goizuetarra eta Iñigo Pascual abaruzarra izan zituen aurkari. Azkenean, Olaizola I eta Pascual bikoteak 22-21 irabazi zuen, emozioz betetako partidak. Pilotariekin argazkiak egiteko eta aitzinez aitzin haiekin egoteko aukera aprobetxatu zuen jarraitzaile batek baino gehiagok. Ekitaldiari akabaila emateko, besta giroak Ordoiki erretegiaren segitu zuen, bertan pilotariekin afari goxo bat partekatzeko aukera izan baitzuen nahi izan zuen guztiak.

KULTUR HITZORDUAK DATOZEN ASTEBURUETAN

Baztango Haur-gazte kantarien laugarren topaketa egingen da Iruritan otsailaren 28an

TTIPI-TTAPA

Elizondoko abesbatza tikiak Baztango Haur kantarien laugarren topaketa antolatuko du otsailaren 28an, larunbat arratsaldeko 6:30etik aitzinera Iruritan elizantza. Bertan haur andana bilduko da elkarrekin abesteko, Kristina eta Maki Urtausunek zuzentzen duten Elizondoko Abesbatza tikiarekin batera, Baztango herrietako eskoletakoak, Baztan Ikastolakoak, San Francisco Javier ikastetxe publikokoak eta Lekarozko institutukoek parte hartuko baitute jaialdian.

Aitzinetik, otsailaren 22an, igandean, kulturarekin lotutako hitzordu bikoitza izanen da. 12:45ean Baztango Dantzariak taldearen eskutik Bailableak (Muxikoak, Jotak, Larraindantza, gaita...) dantzatzeko aukera izanen da Elizondoko Plazan. 19:00etan Iruritan Gizarte Bilgunean berriz, Hazparneko Anderea, Telesforo Monzonek idatzitako antzezlanaren taularatuko du Iduzkilore Antzerki taldeak, Ander Lipus taula zuzendariaren gidaritzapean. Baztango Kultura Batzordeak antolatuko du antzerki emanaldia.

ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 7AN

Ilartasun Eguna arrakastatsua suertatu zen

180 lagun bildu ziren bazkarian

Margari eta Koro

Herritarrei jarritako ixunak ordaintzeko antolatu zen Ilartasun Eguna izigarri arrakasta handia izan zuen. Hasierako prebisioak (100 lagun biltzea) guztiz gainditu ziren, 180 txartel saldu baitziren. Hori dela eta, ekonomiko ki ere behar zen dirua biltzea lortu zen.

Nahiz eta eguraldi nardagarri-zikin bategin (hotza eta kazkabarra), xapittoa pilotalekuan eman zenez, jendea trankila eta gustura egon zen. Bazkal ondotik sorpresa bat ere izan zen, hantxe agertu baitziren dozena erdi bat bertsolari: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Xabier Silbeira, Xebaxtian Lizaso, Andoni Egaña eta Igor Elortza.

Aipatzekoa da guztiguztia jendearen laguntzaz egin zela, eta ez zela apenas gasturik izan: Xapittoa urririk izan zen, sono-ekipa bezala, eta mahaiak, eta ahulkiak, eta baxera garbitzeak, eta janari eta edaria... hori dela eta, antolatzaileek mila-milasker eman nahi dizkie-

te guzti hauei eta baita diru zuzena eman dutenei ere.

Bidegabekeri huntatik ateratako ondorioa hau izan da: herria bera izan dela erasotua sentitu dena (nahiz ta isunak pertsona konkretu batzuk jaso), eta horrek gehiago lotu gaituela. Azken hilabete edo asteetan, besta prestatzen, jendeak mila modutan erakutsi du laguntza eta elkartasuna, sekulako ilusioa izan da herrian afera hune kin; eta hori ere polita izan da. Azken finean, isunak sosarekin ordaintzen ahal dira, baina bertze guzi horrek, ez du preziorik!!!

Museoan bisita multimedia

Gan den udatik huanat, museoak bisita multimedia bat eskaintzen du. *Zugarramurdiko Sorginak* pelikulan erabili ziren lekuetatik pasatzen da, adibidez, herriko plazatik, belagi batetik eta nola ez, lezetik. Tablet batzuei esker, bisitariak filmeko eszena batzuk ikusten ditu, eta aldi berean leku horiek egitan nolakoak diren konprobatzen du. Gainera, herriko egiazko



historiari filmak egiten dizkion keinuak ere jakinen ditu. Hau guztia gidaren esperientziekin eta filmatzean parte hartu edo lagundu zuten zugarramurdiarren testigantzekin apaindu da.

Hori dela, eta Nafarroako stand-ak *Navarra, de película* leloa zue nez, Fitur ferian berriz ere Zugarramurdi aipagai izan zen, Ainhoa Agirre (Lezea eta Sorginen Museoko kudeatzailea), pelikula horren grabaketari buruz aritu baitzen solasean.



ARGAZKIAK: MARGARI ETA KORO

Azketako aparkalekuko xapittoa 180 bildu ziren bazkaltzera eta elkartasuna adieraztera. Ilartasun Eguna "bertsolari" hauek ere agertu ziren. Ez ziren egiazkoak, baina bai autentikoak!!!



UTZITAKO ARGAZKIA

Zugarramurdik Fiturren izan zuen standean, Ainhoa Agirre eta alkatearekin batera izan zen Montxo Armendariz zinema zuzendaria ere.



URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 7AN

SOS Alkerdi Plataformak elgarretaratzea egin zuen Iruñean

Iñigo IMAZ

SOS Alkerdi Plataformak Iruñeko Foruen monumentuaren azpian otsailaren 7an deituriko elkarretaratzean, 130 pertsonatik gora bildu ziren antolatzaileen hitzetan. Deialdiaren helburua, «Marmoles Baztan enpresak ezarri nahi duen ustiapen mota basatiari aurre egitea» zen. Herritarrekin batera, Zugarramurdi eta Baztango auzokideak ere ikusi ahal izan ziren. Partehartzaileen artean, Koldo Amezqueta (Bilduko parlamentaria), Carlos Perez (Geroa Bai) eta Satorrak espeleologia taldeko ordezkari bat izan ziren. Juan Joxe

Suhas bigarren alkateordeak ere parte hartu zuen, baina maila pertsonalean egin zuen eta ez Udalaren izenean.

Plataformaren iritziz, bildutako pertsona kopurua arrakastatsua izan zen eta herri oso baten batasuna islatzen du SOS Alkerdiren aldarrikapenen atzean: «Nafarroako Gobernuak jakin behar du, enpresari eskatu zitzaion ikerketa sismikoa oinarritzat hartuta, hartu ditzaken erabakien gainean egonen garela».

Ustiapen berria ezartzeko momentuan Nafarroako Gobernuak oinarri bezala hartutako proiektuaren txostena



ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

SOS Alkerdik deitutako elkarretaratzean 130 bat lagun bildu ziren Iruñean.

tramitaterakoan izan omen diren irregulartasunak salatu nahi izan zituzten plataformakideek Iruñean. Izan ere, aktibitate hori ontzat emango balitz, salbuespen arkeologikoaren guneaz aparte, IKO deklaraturiko Alkerdi eta Berroberriako kobazuloen biziraupena ere zailtzeke; baita, eskualdeko ekonomia eta bizimoduaren oinarri diren turismoa, mugako merkataritza eta abeltzantza, urdazubiarren osasuna eta ongizatea ezbaian jarritz.



ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

Ugaranak zuzendaritza berria

Ugaranak zuzendaritza berria hautatu zuen 2014ko urte amaieran, ondorioz ardura berriak honela banatu dira: Ixiar Rementegi (lehendakaria), Ainhoa Miura (lehendakariordea), Ana Alzuiet (idazkaria), Anaxtaxi Bidart (diruzaina), Idoia Perurena (bokala) eta Rosa Mari Agirre (bokala). Bertzalde, eta urtero bezela, Ugarana emakume elkarteak sagardotegia antolatu du Hernanin. Afaria martxoaren 6an izanen da eta autobusa jarriko da bazkide nahiz ez bazkideendako, emazte zein gizonendako. Anaxtaxirenean eman behar da izena.

FUNTZIONARIO IZAERA KENDU DIO

Irakasle bat kanporatu du Gobernuak

I. IMAZ

Orain urtebete kargua utzi eta desagertu zen irakasleari funtzionario izaera kendu eta lanetik kanporatzea erabaki du Nafarroako Gobernuak. Ustez ETA erakunde armatuko IBIL talde kritikaren kide izanagatik poliziak segimendua egiten zion bitartean, Urdazubi-Zugarra-murdiko herri eskolako lanpostua utzi eta mugaz beste aldera ihes egin omen zuen. Hori dela eta, Hezkuntza Sailak zigor espedientea ireki zion bere lanpostua utzi izanagatik, hutsegite larria dela egotziz.

Herrian hagitz maitatua zen *Fer-mintxo* irakaslea. Gurasoen artean

iritziak baikorrak dira gaur egun ere. Guraso baten hitzetan, «irakasle bezela paregabea, umeek asko maite zuten. Berriak sorpresaz harrapatu gintuen, ez genuen ezer ulertzen». Bertze batek, alta, desagertu ondoren Guardia Zibilak eskolan sartu zireneko umeak gogoratzen ditu «umeak beldurturik zeuden eta eskatua genien mesedez armekin ez ibiltzeko eskolan, alperrik». «Umeek asko maite zuten eta joan zelarrik pena handia hartu genuen, batez ere umeek. Gaur egun oraindik beragatik galdetzen digute», dio hirugarren ama batek. Herriaren alde egindakoa oroitzen duenik ere bada.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinetatik
 2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

GIZARTEA → MAIATZAREN 10EAN OSPATUKO DA

Herri Urratsen bilduko den diruarekin Ziburuko ikastola lagunduko dute aurten

Kaskaroteneak 700 metra karratuko lur pribatua erosiko du Mariñela auzoan

Franck DOLOSOR

Herri Urrats maiatzaren 10ean ospatuko da beti bezala gure herriko aintziraren inguruan eta aldi huntan bilduko den diruarekin Ziburuko Kaskarotenea ikastola lagunduko dute. Ikastola horrek gora behera aintziz izan du azken hilabeteetan Ziburuko eskuineko auzapezarekin ez baitio laguntzarik eman nahi. Azkenean, Kaskaroteneak deliberatu dute 700 metra karratuko lur pribatua

erostea Ziburuko Mariñela auzoan. Horretarako 300.000 euro bildu behar dituzte eta jadanik elkartasun kanpaina hasi dute. 2014-eko Herri Urratsen karriarat 170.000 euro bildu zituzten euskaltzaleek Seaska federazioa eta Kanboko Xalbador ikastegia laguntzeko. Aurtengo irabazien parte bat Ziburuko ikastolari emanen zaio baina baliteke Xalbador ere beharretan izatea justiziak erabaki baitu Seaskak itzuli beharko dio la Gipuzkoako Foru Aldundiak eman nahi zion 600.000 euroko laguntza. Carlos Urquijo Espainiako gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen gobernu ordezkariak helegitea aurkeztu zuen aldundiak eman nahi zuen dirulaguntzaren aurka.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Herri Urratsen aurkezpen ekitaldia.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Legegile senperrak

Sylviane Alaux Lapurdiko diputatu sozialistak bisita egin die berriki eskola publikoko ikasleei. Bisita horren kari gazteek ikasi ahal izan dute zer den xuxen diputatu baten lana, nola prestatzen dituzten legeak eta zonbat diru irabazten duten, bertzeak bertze. Haurren giza eskubideen inguruko legea landu dute eta proiektua aurkeztu beharko dute martxoan. Gero proposamen hori Parisen dagoen legebiltzarrerat eramanen du diputatu ziburutar ezkeriarrak.

Denboralea

Otsaila eguraldi biziki euritsu eta elurrarekin hasi da Senperen ere. Aintzineko egun hauetan Urdazuri ibaiaren maila maiz zaindu dute herritar aintzek alerta egoeran izan baita Lapurdi hegoaldea. Zorionez ez da makurrik gertatu aldi huntan. Bertzalde, otsailaren 3 eta 6an gure herriko bazterrek xuri xuriak agertu dira eta Ortzango errekan gutitan ikusten dena gertatu zen aintzirako hondartza elurrez estalia iratzarri baitzen. Elurak ez du kalterik sortu Senperen agertu bezain laster aski agudo urtzen baita.

SARA

GIZARTEA → OTSAILAREN 6AN JOKATU ZIREN FINALAK

Musa nagusi izan da eta izanen da Herriko Etxeko edantegian

Milafrangako Larre eta Haran pare txapelak

Joana GERENDIAIN

Otsailaren 6an, herriko etxeko edantegiko mus txapelketa bukatu da, aurten 18 ekipak parte hartu dute. Milafrangako Larre eta Haran pareak garaipena ezagutu du Frédéric Barreneche eta Jérôme Pradère saratarren kontra. Final ttikia Antton Bimboire eta Julien Breton pareak irabazi du Julen eta Ellande Eiherabideren kontra. Mini mini finala Xavier Tapia eta Jean-François Iribarrenek irabazi dute Peio Mendionde eta Jon



ARGAZKIA: HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Xapelak saria eta botilak eskuan dituztela ageri dira argazkian.

Indabururen kontra.

Bertzalde, otsailaren 28an, larunbatarekin, arratsaldeko 5etatik goiti *Union Basque* txapel-

ketako kanporaketak jokatuko dira edantegian, finalerako kalifikatzeko. Frantziako mus txapelketako finalak Donaza-

harren jokatuko dira apirilaren 6an. Xapelak Munduko mus txapelgoa jokatzeo aukera izanen dute Argentinan.

KIROLAK

X. Sara Korrika martxoaren 29an egingen da aurten

TTIPI-TTAPA

Urtetik urtera, gero eta indar haundiagoa hartzen ari den Sara Korrika Trail lasterkaldia- ren hamargarren edizioa martxoaren 29an egingen da. Larun mendiko mazeletatik iraganen den itzuli honek 25 kilometro izanen ditu, 1.443 metroko desnibel positiboa eta 1.442 metroko negatiboa. Punturik garaiena Atekaleun da, 728 metrora dagoena, ibilbideko 7,3 kilometroan. Izen ematea: www.sarakorrika.com. Oinezko mendi mar- txara ere egingen da. Izen ematea 07:00etan ire- kiko da plazan eta 07:30etik 08:30era abiatuko dira ibiltari- ak eta korrikalariak 09:00etan.

Zuen urtebetetzetan
bota zaituztegu faltan,
Irisoko bazkaritan
zate gure bihotzetan.

Zuen indar ta irriak,
zuen ontasun guziak
betetzen ttigu biziak
ta erakusten bidiak.

Adio kide maiteak,
zinez guraso onenak
senide paregabeak
ta lagun ezin hobek.

**Joxe Mari
ETXEPARE IRISARRI**
«Attitta»
1948-02-25/2013-02-11 (II. URTEURRENA)

**Maritxu
BABAZE JUANIKORENA**
1955-02-25/2012-03-17 (III. URTEURRENA)

SEKULA AHAZTUKO EZ DIZUETEN ZUEN FAMILIAK

**Pakita
SANZBERRO ELIZALDE**
III. URTEURRENA
Etxalarren, 2012ko otsailaren 23an

Betirako gure bihotzetan

BERE FAMILIA

prezio zoramera Martutzak-en



otsailaren 21a, larunbata · merkatu txikia
EGUN GUZTIA IREKITA
(goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara)

EZKONTZAK

Oscar Cabodevilla Martinez-Losa eta
Idoia Bergara Almandoz, Iruña eta
Arantzakoa, urtarrilaren 30ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Julen Arzallus Garces, Leitzakoa, azaroaren 23an.
Enai Rekondo Antzizar, Leitzakoa, urtarrilaren 9an.
Luka Gallego Galindo, Doneztebekoa, otsailaren 2an.
Arane Bañares Ziganda, Doneztebekoa, otsailaren 5ean.
Oier Txoperena Etxarte, Etxalarkoa, urtarrilaren 29an.
Lierni Sansiñena Pikabea, Etxalarkoa, otsailaren 4an.
Illune Legarburu, Sarakoa, urtarrilaren 12an.
Charline Decrock, Sarakoa, urtarrilaren 25ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Lino Telletxea Eltzaurdia, Berakoa, urtarrilaren 29an, 88 urte.
Casilda Irazusta Marmol, Aresokoa, urtarrilaren 30ean, 98 urte.
Josefa Martina Elizalde Irazabal, Lesakakoa, urtarrilaren 30ean, 95 urte.
Justa Hidalgo Etxeberria, Urdazubikoa, urtarrilaren 31n, 89 urte.
Francisco Garcia Arrieta, Leitzakoa, otsailaren 2an, 72 urte.
Maximo Aranguren Santesteban, Zubietakoa, otsailaren 2an, 87 urte.
Jeronimo Irigoien Jorajuria, Urrozkoa, otsailaren 1ean, 83 urte.
Maria Rosario Etxenike Arburua, Lezarozkoa, otsailaren 4an, 83 urte.
Miguel Maisterrena Barrenetxe, Amaiurkoa, otsailaren 5ean, 85 urte.
Angelita Mitxelena Abanz, Lesakakoa, otsailaren 5ean, 88 urte.
Juan Jose Otxandorena Telletxea, Labaiengoa, otsailaren 4an, 83 urte.
Loreto Lazkano Arrieta, Arantzakoa, otsailaren 6an, 86 urte.
Puri Arribillaga Altzuguren, Berakoa, otsailaren 6an, 84 urte.
Damaso Zenborain Huarte, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 7an, 72 urte.
Severiano Mikelarena Mutuberria, Zigakoa, otsailaren 8an, 52 urte.
Evangalina Peña Etxeto, Berakoa, otsailaren 9an, 84 urte.
Esperanza Ruiz Fernandez, Sarakoa, urtarrilaren 29an, 93 urte.
Simone Subrenat Robineau, Sarakoa, urtarrilaren 31n, 88 urte.
Eusebio Izeta Elizalde, Elizondokoa, otsailaren 11n, 92 urte.
Severo Aldaia Indakoetxea, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 11n, 80 urte.



**Antonia
GOLDARAZENA OTEGI**
Lesakan, 2013ko otsailaren 16an
II. URTEMUGA

*Emazte, ama eta amatxi maite
zure ondoan azkenera arte
gorde leku bat gu joan arte
Adiorik ez, gero arte.*

SENARRA, SEME-ALABAK ETA BILOBAK



**Mikel
AROCENA ETXEBERRIA**
«Kalimotxo»
Almandozen, 2014ko otsailaren 20an
I. URTEMUGA

*Senar eta Aitetxo maitia, urte bat pasa da ixil ixilian joan zinela
Argi bat itzali zen hemen, huts haundi bat utziz bizi garean artean
Aunitz maite zintugun, aunitz maite zaitugu eta aunitz maitatuko zaitugu, beti
Ez zaitugu ahaztuko inoiz, eskermille gugatik egin duzun guziagatik
Beti izango zaitugu gure bihotzean
INOIZ EZ DA IZANGO BERDIN ZU GABE!!!
ZURE EMAZTEA: IONE MITXEO, SEMEAK: MIKEL, AIMAR ETA OIER*

ELKARTEAK → OTSAILAREN 9AN JASO ZUTEN SARIA IRUÑEAN

Nafarroako klub onena izendatu dute Doneztebeko Erreka elkarteak

Juan Martinez de Irujo eta Nerea Pena izan dira kirolari onenak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 2014ko kirolari, kirol talde, federazio, zuzendari eta teknikari onenen sariak eman ditu eta Doneztebeko Erreka elkarteak izendatu du Nafarroako kirol elkarte onena. Joseba Legarra presidenteak jasozuen saria otsailaren 9an Iruñean, Yolanda Barcina presidentearen eskutik. Kirolarien artean, Juan Martinez de Irujo pilotaria eta Nerea Pena eskubaloia jokalaririk jasozuen onenaren saria.

Kirol teknikari onenaren saria Joxe Bixente Eguzkitzarentzat izan da (Kick Boxing), kirol zuzendari onenaren sa-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Joseba Legarra Erreka elkarteak presidentea, Nafarroako Gobernuako ordezkariarekin

ria Mikel Agirrek (Nafarroako Tennis Federazioak presidentea), Federaziorik onenarena Nafarroako Hipika Federazioak eta kirol talderik onenaren saria Movistar Team txirindulari taldea. Gainera, hil ondoko saria ere eman diote Jose Luis Hernandez Pitxiri, Nafarroako kirolari egindako apor-
tazioarengatik. Nafarroako 27 titulu eskuratu zituen Pitxik, salto eta jaurtiketa modalitate ezberdinetan eta pres-
tatzailera ere izan zen.

ERREKAREN MERITUAK

Erreka kirol klubari dagokionez, epaimahaiak gogoratu du 1976an

sortu zela Donezteben eta eskubaloia, pilota, erremontea, judoa, mendia, atletismoa, triatloia dantza eta kultur arloko sailak dituela. Eskubaloian, kategoriaz ezberdinetan sei talde ditu, eta kirol eskolak esku pilotan eta erremontean. Mendi taldeak, berriz, hilabetero ate-

raldiak egiten ditu. Gaur egun 445 bazkide ditu Errekak eta urteko ar-
rrekontua 56.000 eurokoa da.

Errekako presidentearekin batera, zuzendaritza batzordeko Xanti Uterga, Pascual Bertiz eta David Mindegia, aitzineko zuzendaritzako Juan Telletxea eta Pablo Elizondo eta udalaren izenean, zinegotzia eta aldi berean urtetan Errekako judo eskolako arduraduna den Oskar Mindegia izan ziren ekitaldian. Errekatik aipatu dutenez, «jende aunitzen lan bikainaren ondorioa da saria. Gu-tti batzuk izan dugu aukera sari banaketan egoteko, baina hagitx argi dugu zuek guztiak zaretela saria irabazi duzuenak. Oraindik ere indar haundiagoz lanean segitzeko balio dezala sariak, gure nortasuna eta kirola ulertzeko modua aldatu gabe».

PILOTA → OTSAILAREN 21EAN DONEZTEBEKO PILOTALEKUAN

Malerrekako XIII. pilota txapelketako finalak prest

Zazpi kategorietako finalak larunbat goizean jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 21ean jokatu dituzte Erreka elkarteak hamahirugarren

aldiz antolatutako Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak Doneztebeko pilotalekuan. Aurten partida guztiak goizez jokatu dituzte, 09:30ean hasita.

Benjaminak

Zubizarreta (Lazkao) eta Iribarria (Lazkao)-Ages-ta eta Erbiti (Erreka).

Alebinak

Matteo (Naxera) eta Arbaiza (Orozko) Amiano eta Unanue (Añorga).

Infantilak

Oskoz eta Cuarain (Oberena)-Ariztegi eta Bobadilla (Barberito I).

Kadeteak

Zubizarreta (Lazkao) eta Aranguren (Usurbil), hau idaztean erabaki gabe-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pilotazaleek Doneztebeko frontoian dute hitzordua.

ko bikotearen kontra.

Jubenilak

Illarramendi eta Aranberri (Zestoa) - Anso (Zugarralde) eta Garmendia (Lazkao).

Bigarren mailako se-

niorrak

Mendy eta Imaz (Aurre-ra Saiaz)-Urkizu eta Lizeaga (Hernani).

Elite

Mendinueta eta Imaz - Elizalde eta Eskudero.

MENDI LASTERKETAK → EHUN PROBA EZBERDINETAN PARTE HARTU NAHI DUTE

Manttalek 10x100 erronkarekin ospatuko ditu hamar urteak

Apirilaren 19ko Mendi Maratoi Erdia prestatzen ere hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Manttalek hamargarren urteurrena 10x100 erronkarekin ospatuko du, eta taldeko partaideek 2015. urtean ehun lasterketa desberdinetan parte hartu nahi dute. Berako taldeak 100 lasterketa burutzeko helburua jarri du urtarrietik abendurarte, 2006an taldea martxan jarri zenetik ez baitu inoiz lortu. Manttaleko partaide bat edo gehiagok lasterketa berean parte hartzen badu, lasterketa bakar bat bezala kontatuko da.

2014an 89 lasterketetan parte hartu du Manttalek, haietatik 53 mendian. Helburu hau hamargarren urteurrena Manttalek hobekien




UTZITAKO ARGAZKIAK

Goitian parte hartzaile gehienak irakasleekin eta beheitan, hiru txapeldunak.

dakien moduan, korrika eginez alegia, ospatzeko finkatu du. 2006an martxan jarri zenetik, taldea Euskal Herriko lasterketan txapelketa beteranoen kategorian. Gizonezko eta emakumezko taldeez aparte, Manttalek 6 eta 12 urte arteko haurrentzat atletismo talde bat martxan jarri zuen duela sei urte. Monitoreekin entrenatzen dute

nera bertz bi korrikalarik, Txus Unсион eta Josema Huizik 6 lehenengotan bukatu zuten Nafarroako Mendi Lasterketen txapelketa beteranoen kategorian.

Urritik eainera larunbatero. Lasterketetan parte hartzeaz gain, lasterketen antolaketan ere aritzen da taldea, hala nola Berako Mendi Maratoi erdia, hurrengo apirilaren 19an ospatuko dena, Alkaiaga Traila uztailan, Berako Gau krossa abuztuan, eta la-guntza ematen du Lizuniagako igoera eta Agerrako Krosean.



Pertsonaia

Didier ZAGO

Manttaleren 'fitxaketa' berria

Frantziar atletak eskatu eta gero, 2015. urtean Manttalerekin korrika egingen du Didier Zagok. Feaseko korrikalariak harreman ezin hobea dauka talde beratarrekin, eta ez da ahanzi behar hamar edizioetatik 5 aldiz irabazi duela Berako Mendi Maratoi Erdia. Zagok gain, Ibai Iturria, Iñaki Odriozola eta Mikel Viñaok ere Manttalerekin korrika egingen dute. Bertzalde, Gorka Hercek azken urteotan Manttale taldearekin egon eta gero, Oiartzunen, bere jaioterrian, sortu den talde berri batekin segituko du.

PILOTA → ERREMONTEAREN GALA

Endika eta Olazar 2014 urteko erregularrenak

Plantilla osoa saritu du Oriamendik

TTIPI-TTAPA

Oriamendi 2010 enpresak antolatutako Erremontearen Gala burutu zen otsailaren 5ean

Galarretan. Aurtengoan enpresako erremontelari guztiak omendu nahi izan dituzte, duten afizioaz gain, kantxan erakutsi duten ilusioa, kiroltasuna eta kompetibitatea eskertzeko *Zuei esker erremontea bizirik zioen txapel bana ja-*



ARGAZKIAK: MAIALEN ANDRES

Endika eta Olazar, 2014ko erremontelari erregularrenak.

so dute enpresaren eskutik.

A multzoko erremontelarien artean, Saldias-ko Endika Urrutiak jaso zuen 2014 urteko erremontelari erregularre-

naren saria, 80 partida jokatu eta 34,75 puntuarekin. B multzoko erremontelarien artean, berriz, Doneztebeko Patxi Olazar izan da erregularrena, 65 partidatan

34,63 puntu eskuratuta. Sari banaketa baino lehen, erremonte txapelketa azkarra jokatu zen eta Ezkurra eta Barrenetxea IV suertatu ziren txapeldunak.

otsailak 19 - martxoak 5

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eu edo 948 63 54 58

Hitzaldiak	Ospakizunak	Bertsokak
 <p>LEITZA 2015.02.24</p> <p>Erieta Eskolako Guraso Elkartearen hitzaldiak</p> <p>Eskolako Guraso Elkarte hainbat hitzaldi antolatzen ari da. Hilaren 24an elikadura nahasteen prebentzioaz ariko dira eta martxoaren 10 eta 17an sexualitateaz.</p>	 <p>MALERREKA 2015.02.27</p> <p>Saharako Errepublikaren Eguna Doneztebe eta Zubietan</p> <p>Sahara sahararentzat dela aldarrikatzeko eguna antolatu du Saharaztan elkarteak. Donezteben elkarretaratzea egin ondotik, Zubietan jarraituko dute ekitaldiek.</p>	 <p>LESAKA 2015.03.08</p> <p>Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa</p> <p>Lesakako Kultur Etxean jokatuiko dute Txapelketako bigarren finalaurrekoa, martxoaren 8an 17:30ean hasita. Sei bertsolari ariko dira lanean.</p>

Hitzaldiak

LEITZA

'Elikadura nahasteen prebentzioa eta hautemate azkarra'

Otsailaren 24an udaletxean, 16:00etan.

BERA

'Auzolanean bakea eraikitzen' jardunaldiak Beralandetan

Otsailaren 19an *Iragana: egia, justizia eta erreparazioa* 19:00etan.

Otsailaren 26an *Oraina: bakegintzaren ikuspegiak* gaia, 19:00etan.

Martxoaren 5ean etorkizunaz hausnarketa 19:00etan.

ELIZONDO

Eztabaida-foroaOtsailaren 19an *Baztan erreka eta uholdeez*, udaletxean (19:00).

AMAIUR

Emakumeen Nazioarteko Egunaren hariraMartxoaren 6an *Amaiur 1512* hitzaldia Otsando elkartean, 19:00etan.**Ikastaroak**

BORTZIRIAK

Haur elikadura eta nutrizioari buruzko**eskola-jantokiei buruzko V. ikastaroak**Otsailaren 28an *Irensteko arazoak eta nahasmentuak* Etxalarren.

BERA

Meditazioa ezagutuz

Otsailaren 27an Beralandetan (18:00).

ELIZONDO

Ekonomia mintegia

Otsailaren 21 eta 28an eta martxoaren 7an Arizkunenean.

DONEZTEBE

Txalaparta tailerra

Martxoaren 3an 17:30ean Solaslaguna saio osagarria.

Kontzertuak

IRURITA

Baztango Haur Kantarien IV. Topaketa

Otsailaren 28an elizan, 18:30ean.

BERA

Bera kantari

Otsailaren 28an Illekuetatik hasita (19:00).

Dama taldea Gaztetxean Martxoaren 6an.

LESAKA

Los Txamukos taldea

Otsailaren 28an Koxkilla ostatuan (23:30).

DONEZTEBE

Oihan Vegarekin diskofesta

Otsailaren 28an El Cafe-The Moment-en, 00:00etan.

AMAIUR

Emakumeen Nazioarteko Egunaren hariraMartxoaren 7an Petti eta Estitxo Pinatxo *Amaiur gaztelu beltza* abesten.

PROPOSAMENA

IRURITA

Baztango Haur Kantarien IV. Topaketa

Baztango herrietako eskoletako ikasleek, Baztan Ikastolako, Elizondoko eskola publiko eta Lekarozko institutuko ikasleek parte hartuko dute otsailaren 28an Irurita-ko elizan eginen den Baztango Haur Kantarien Topaketan. Egiten duten laugarren aldia da eta Elizondoko Abesbatza Ttikiak antolatu du. 18:30ean hasiko da emanaldia.



ELIZONDO

Ilun&Sun

Martxoaren 7an Lur aretoan.

Antzerkiak

IRURITA

Helduentzako antzerkiaOtsailaren 22an *Hazparneko anderea* Gizar-te Bilgunean (19:00).**Ipuin-kontalariak**

BERA

4-7 urteko haurrentzat

Otsailaren 20an Liburutegian 18:00etan.

Dantzak

ELIZONDO

Bailableak

Otsailaren 22an Baztango dantzarien eskutik plazan (12:45).

Bertsokak

NAFARROA

Bertsolari Txapelketako final-laurdenak

Otsailaren 21ean Lizarrako Gazteriaren Etxean (17:30).

Otsailaren 22an Lakuntzako Kultur Etxean (17:30).

Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak

Martxoaren 7an Berriozarko Entzunaretoan (17:30).

Martxoaren 8an Lesakako Kultur Etxean (17:30).

Martxoaren 15ean Burlatako Kultur Etxean (17:30).

Ikuskizunak

ELIZONDO

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira

Martxoaren 8an *Bertsolaritzaren sekretuak, isilduriko emakumeak* ikuskizuna Arizkunenean 19:00etan.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Martxoaren 8an

Txo, Mikmak Txikia
ikuskitzen berria,
16:00etan Lur aretoan.

Filmak

DONEZTEBE

'Doraemon eta Kiboaren erreinua'

Otsailaren 22an

16:30ean.

'Jostunak' dokumentala

Martxoaren 1ean Gure Esku Dago lantaldeak antolatua.

Ospakizunak

MALERREKA

Saharako

Errepublikaren Eguna

Otsailaren 27an Donezteben eta Zubietan.

Lehiaketak

BERA

Komiki lehiaketa

Apirilaren 13ra arte aurkez daitezke lanak.

Azokak

ELIZONDO

Merkatarien stock azoka

Otsailaren 28an eta martxoaren 1ean Bertan elkarteak antolatua.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango

Mendigoizaleen irteerak

Otsailaren 22an Oronoztik Aizkolegira, 07:00etan abiatuta.

Martxoaren 1ean

Itsusiko harriak, 08:00etan abiatuta.

Martxoaren 7an

Kontrabandistak, Erratzun, 20:00etatik 00:00etara.

Martxoaren 8an

Izpegitik Olatera, 07:30ean abiatuta.


ETXALAR

Zapingorriren irteerak

Otsailaren 22an Biantitzera. 08:00etan plazatik abiatuta.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Soldaduen itzulera
MAIALEN BERASATEGI
Erein, 2014

Christopher Baldry-k azken hamabost urteeta-ko oroitzapen oro galdu du, Lehen Mundu Gerran borrokan ari zela zaurituta. Etxera bidaliko dute, eri (ero?), baina, hara iristean, zeharo arrotza eginen zaio bere etxe maite berritua, bai eta Kitty emaztea bera ere. Familia-gizon heldu adeitsu hura 21 urteko gazte alai buruarin bihurtu da. Eta okerrena ez da hori: tematua dago duela hamabortz urte maite izan zuen neska hura maite duela oraindik, hau da, Margaret Allington, langile-herri batean bizi den andre txiro bat. Zalaparta. Eskandalua. Mundua hankaz gora. Etxe barrutik aterako ez den tragedia bat. Rebecca West (Kerry, 1892 – Londres, 1983) da liburuaren idazlea, kritikaria, kazetaria eta bidaiaria ere izan zena. Euskara itzuli, berriz, Maialen Berasategi Catalán gasteiztarrek egin du. Hauxe da bere lehenbiziko literatur itzulpen bakarkakoa.


Musika



Gauko Entziklopedia Koxkorra
2PRINCESBARBUDES
Gaztelupeko Hotsak, 2014

Helena Casas eta Marc Marcé kataluniarrek osaturiko musika taldea da 2princesesbarbudes; haurrentzako eta familientzako ikuskizunak eskaintzen dituzte. Azken lan honi *Gauko Entziklopedia Koxkorra* paratu diote izena eta lan honetan, 2princesesbarbudes taldeak gauko kontuak hizpide dituzten 13 abesti bildu ditu. Letrak ere taldeak osatuak dira Xavi Grimau poeta katalanak (*Gaua marrazki bat da*) eta Maialen Lujanbio bertsolariak (*Ondo lo egin*) idatzitako biak izan ezik. Helena Casasek ilustratutako albuma da liburu-disko honen formatua. Pilarik gabeko jostailu-tresnekin egiten dute musika. Pop estetika minimalista eta poesia letra burutsuak dituzten abestiak interpretatzen dituzte. *Enciclopedia baixeta de la nit* katalanezko diskoaren euskarako egokitzea da. Taldekideak kataluniarrek baldin badira ere, euskaraz egin dute lana. Euskal artisten artean, Maialen Lujanbiorekin batera, Joseba Tapiak parte hartu du diskoan.

Internet



Euskararekin dibertitzeko lehiaketaren ataria
EUSKARARENGINAKA.NET

Kutxa Ekoguneak euskaraz eta euskararekin dibertitzeko antolatu duen lehiaketa da Euskararen Ginkana, Azkue Fundazioaren babesarekin, eta horretarako sortua dute www.euskararenginakana.net ataria. Laugarren edizio honetan, berriz ere, taldekako lehiaketa izanen da. Astero web orri honen bidez eginen diren probetan puntuazio gehien lortzen dituzten taldeak pasako dira apirilaren 18an Donostiako Ekogunean burutuko den lehiaketako final handira. Saria euskararen aldeko proiektu baterako 3.000 euroko laguntza izanen da. IKTak eta Ekologia izanen da aurtengo gaia eta beraz, gainditu beharreko probak eta galderak mundu digitalean euskarak eta ekologiak duten presentziari lotuak izanen dira. Lehiaketa parte hartzeko www.euskararenginakana.net atarian eman behar da izena. Lehiaketaren eta taldeek egiten duenaren jarraipena ere web honetatik egiten dute.

Nire aukera



Gorka ORDAX
Elgorriagako gaztea

«Motorrarekin zerkusia duten gauzak ikaragarri gustuko ditut»

Tikitatik etxean entzundako musika eta motor soinuak izan du eraginik Gorkarengan eta horregatik, batez ere «musika, rallyak eta motorraren zerkusi duten gauzak ikaragarri gustuko ditut. Nere aitak bezalaxe, dena kontajiatzen da» azaldu digu irriz. As-teburuetan zer egitea atsegin duen galdetuta, segituan osatu digu plana «ederki gosaldtu, nere lagun eta neskekin rally batera joan, ongi afaldu eta besta pixkot egitea izanen zen egun zoragarri bat neretzat». Elgorriagan bizi da eta «herri elegantea» iruditzen zaionez, «soberan ezer ez» duela dio. Faltan berriz, «gazte gehiago, batez ere asteburuetan, herriari saltsa pixka bat izateko». Momentua bizitzea maite duela ere erran digu «ez dut etorkizunean gehiegi pentsatzen, egunez egun bizi behar da eta disfrutatu familia, neska eta lagunekin». Motor hotsak ere ez ditu aparte utzi nahi «nere ametsa izanen zen noizbait, anaiarekin batera gure zirkuitotarako bmw rallytarako prestatu eta karreratko batzuk egitea».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio ekonomikoak. ☎646 774177.

BERA. Alzate karrikan pisua salgai, zaharberritzeko. ☎948 630446/635 729858.

LESAKA. Herrigunean dagoen 2 logelako pisu dotorea salgai. Sartzeko prest. Mobleztatua. Sukaldea eta egongela bateratua beheko suarekin. Berogailua gela guztientan. Balkoi eguzkitsuarekin. Prezio ona, negoziagarria. ☎686 937420.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo www.ttipi.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ALKAIAGA. Baserria salgai. Lurreko plakak berriak ditu, gero banaketa bakoitzaren gustura. Eguzkitsua eta bistak herrira begira. ☎617 793462.

BERA. Alzaten, Iparralde karrikan pisua salgai. Berritua. 3 logela, egongela, komuna, sukaldea, balkoia eta berogailuarekin. ☎677 813646.

LEITZA. Uharte Gotzaian pisua salgai. 90 m²koa, 2. solairuan, igogailuarekin. Sukaldea, komuna, berogailua eta leihoak berrituak. Balkoia eta leihoak kanpo aldera. ☎637 806044.

DONEZTEBE. Duplexa errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. 350 euro. Pisua estrenatzeko dago. ☎674 847735.



BERA. Etxebizitza errentan eman nahi da Itzea karrikan. ☎609 973306.

LESAKA. Pisua errentan emateko, gelaka alokatzeko, errentan hartzeko erosteko aukeran edo saltzeko. 4 gela, komuna, egongela handia, sukaldea eta terraza itxia. ☎677 356461.

URDAZUBI. Dantxarriean apartamentuak errentan emateko. Bat 3 logela, egongela, su-

kaldea eta balkoiarekin, 110 m². Eta bertzea logela, saloi-sukalde eta trastelekuarekin, 45m². ☎690 388134.

ALMUÑECARren, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko. Pertsona bat edo birentzat egokia. Hondartzako lehen lerroan, igerilekua eta bista ederrak. Guztiz ekipatua, aire egokitua. ☎658 943702.

LEGASA. Pisua errentan emateko edo saltzeko. Berritua. Berogailua. Dena kanpora begira. 3 logela. ☎677 089046.



ETXALAR. Larrapil Sarriku karrikan etxe bat

errentan emateko. Herriko bista zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handiarekin. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688 842054.

**GARAJEAK/LOKALAK**

salgai

LESAKA. Eltzetako plaza lur azpiko garaje itxia salgai. ☎646 774117.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan emateko

BERA. Legia karrikan 50 m²ko garajea errentan emateko. Eguzkitsua. ☎686 990087 / 948 630217.

ZERBITZUAK

zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miquel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

LANA

eskariak

BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK, LEITZALDEA. Interna be-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urtarrilaren 30etik otsailaren 6ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 35 € (=)

Zerri gizena
1,030 € kiloak. (+0,010)

Zerramak:
0,380 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,16
1.koa 4,96
2.koa 3,78

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,26
1.koa 4,00
2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 160,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,00/6,60
8-10 kilokoak: 5,70/5,90

zala emakume esperientziaduna eta errefentzietan pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak egiten edo haurrak zaintzen ariko litzateke. **☎606 330200.**

SUNBILLA. Euskaraz eta frantsesez hitz egiten duen emakumea lan bila dabil. Saltzaile, administrarritza eta zerbitzari lanetan esperientzia duena. **☎687 832844.**

ESKUALDEA. Haur eta helduak zaindu eta garbiketa lanak egiteko emakumea prest dago. **☎602 473794.**

Neska langilea, arduratsua, exigentea, itxura onekoa eta esperientziarekin lan bila dabil: etxe eta enpresak garbitzen, adinekoak eta haurrak zaintzen... **☎634 740317.**

Doneztebeko emakume euskaldun batek etxeko lanetan, haur edo adinduak zaintzen lan eginen luke. **☎673 372938.**

LANA eskaintzak

URDAZUBI. Montxo ostatuan frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar da. **☎948 599039.**

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar da. **☎607 827309.**

ZUGARRAMURDI. Jatetxe batean zerbitzari bat behar da. Asteburuetan eta udan lan egiteko. Frantsesez jakitea beharrezkoa da. **☎948 599187.**

MOTORRAK salgai

ARIZKUN. Golf v gt tdi autoa salgai, 140 cv. Arras egoera onean, auto zoragarria, dena homologatua. Beltza. 2008koa. **☎699 375558.**



Toyota Land Cruiser 3.0 D4D VXL salgai, rebisioak egunean, 108.000 km, 2007koa. **☎650 409246.**



MOTORRAK tailerrak



ANIMALIAK salgai

Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. Atta eta ama langile finak. **☎661 767027.**

Bi asto eder salgai, ama kumearekin eta ernari. Prezio negoziagarria. **☎690 181644.**

ANIMALIAK oparitzeko

Spaniel arrazako za-

kurra oparitzeko. Emea eta hagitx polita. **☎677 594892.**

DENETARIK salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. **☎659 867287 / 699 461394.**


ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Paga eta haritza. Etxera eramaten da. **☎676 242520.**



100 litroko tankea salgai. **☎948 453087.**

Ile naturala duen peluka salgai, gaztaina kolorekoa eta sorbaldarainokoa. Sare berezia du, ona da eta onkologiarako egokia. **☎609 083342.**

Bikoteentzako gela salgai, estreinatu gabea. 1,50 mko ohea, koltxoiarekin, 2 mesanotxe, armairua eta komoda ispiluarekin. Egoera ezin hobean. **☎635 875730.**



Gasoliozko galdara eta 1.000 litroko **depositoa** salgai. **☎948 581127 / 679 615487.**

Silo bolak salgai. Beldarra eta soroa. **☎690 388134.**

Pigini markako **trikitixa** salgai. Trikitixa-III, Si b-Mi b. 1.250 euro. **☎660 972692.**



EZKURRA. Arkazi-piketeeak salgai. 2 euro eta erdi bakoitzak. **☎948 510143-600 699266.**

BERAKO UDALA

XEHETASUN AZTERLANA JENDEAURREAN

Berako Udaleko Alkateak, 2015eko urtarrilaren 23an emandako ebazpenaren bitartez, Manuel Cachafeiro Villamayorek sustatutako Ibardingo Manolo Bentako Xehetasun Azterlana (4. poligonoko 174. lur-zatia) hogei egunez jendaurrean jartzea onetsi du, iragarkia NAOean argitaratu ematen denetik.

Bera, 2015.01.30

ALKATEA,
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

DENETARIK galdau-aurkituak

Urrezko eraztuna galdau da Iturengo inauterietako astelehenean. Barrenetik *Miren 4/10/1975* idatzia duena. **☎646 024024.**

ttipi-ttapa

NEGUKO ESKAINTZA BEREZIAK

2.500 FLYER A5 ↔ 143€

5.000 FLYER A5 ↔ 165€

KOLORETAN | DISEINUA BARNE | INPRENTA BARNE | GARRAIOA BARNE | BEZA BARNE | EPEA: 10 LAN EGUN

FLYER A5
Personalizatuak
210 mm
148 mm

KOSKONTAKO BIDEA, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.eu
www.kulturkari.com | www.ttipi.eu

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.eus bitartez



Lesakako UNAX BEREAU IRIGOIEN-ek 7 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztia eta bereziki Enaitzen partetik.



Sunbillako IKER IBARRA MARIEZKURRENAK otsailaren 7an 4 urte bete ditu. Zorionak eta lau muxu potolo familia guztiaren partetik. Segi beti bezain mutiko jatorra izaten!



BENITA BERGARAK urteak beteko ditu otsailaren 20an. Zorionak familiaren partetik.



Etxalarko KATTALIN PINILLOS AUZMENDIK 3 urte bete ditu otsailaren 4an. Urte askoz, bihotza! Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta Joanesen partetik.



Legasako GAXUXA ZELAIETA EULATEK 8 urte beteko ditu otsailaren 18an. Auniz urtez eta muxu haundi bat lgantziko familiaren partetik.



MADDI eta AITOR BALEZTENA TRUEBAK urte bat beteko dute otsailaren 26an. Auniz urtez familia guztiaren partetik eta batez ere zuen lehengusina Alazneren partetik. Muxu bana.



Zorionak ASIER OLAIZOLA eta INIGO PASKUAL pilotariari, otsailaren 7an Elizondon irabazitako partidagatik; eta eskerrik asko argazkiagatik, Sunbilla eta Urdazubiko Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



Legasako NAIARA MENDIBURU ANDRESENAK 8 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



OIHANA DOMEÑO ZOZAIK otsailaren 23an 6 urte beteko ditu. Zorionak Gerendian eta Urrozko familiaren partetik. Muxuak eta txokolata goxoa prestatu.



Gure izeba XUNEK urteak beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak Anartz, Elaia eta Beñat zure iloben partetik. Beti bezain alai segi dezazula. Berendu goxo-goxoa prestatu, gu han izango gara. Hiru muxu potolo, zorionak!

LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

eta baita azterketa egiterakoan CIESeK

Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



ttipi-ttapa

Ttipi-Ttapa-rekin zure iragarkiak eragin haundiagoa du

TTIPI-TTAPA
27.000 irakurle

- D. NOTICIAS 12.000 irakurle
- D. NAVARRA 10.000 irakurle
- GARA 8.000 irakurle
- MARCA 2.000 irakurle
- BERRIA 2.000 irakurle
- BESTE BATZUK 7.000 irakurle

Sexuaren arabera
GIZONAK %36,80
EMAKUMEAK %63,20

Adinaren arabera
14-24 urte %8,50
25-34 urte %15,10
35-44 urte %25,40
45-54 urte %20,90
55-64 urte %17,90
+ 64 urte %12,20

Ikasketa mailaren arabera
IKASKETARIK GABE %1,40
LEHEN IKASKETAK %11,70
LANBIDE HEZIKETA %37,00
BATXILERGOA %30,80
UNIBERTSITATEA %19,00

Datu iturria:
CIES 2014ko 2. neurketa

Zorionak zuri zorionak zuri
zorionak —————
zorionak bit!!!!

hemen agertu nahi duzu?

argazki soila
4
EURO

argazki bikoitza
8
EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

egin zure erosketa
www.ttipi.eus en



Kolaboratzaileak:




LUR BORROKA KLUBA KICK-BOXING // BOXEO // K1	21	OTSAILA 19:00	10€	DJ NASH	21	OTSAILA GAUEAN
MUS TXIMISTA <small>Apuntatzeko: 696791059 / 667259261</small>	7	MARTXOA	1000€^{KO} SARIA	ilun&sun	7	MARTXOA GAUEAN
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS						
SALSA BESTA+AFARIA <small>Apuntatzeko: 696791059 / 667259261</small>	14	MARTXOA		DJ NASH	14	MARTXOA GAUEAN
HAUR KANTU JAIALDIA	21	MARTXOA 18:30		DJ PALI	21	MARTXOA GAUEAN
TRIKIDANTZ	28	MARTXOA		KORRONTZI +GURATZ DANTZA TALDEA	4	APIRILA

t tipi txartelarekin beti irabazten da !
DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58
Info gehiago: **TTIPI-TTAPA**
Koskontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 | F. 948 635 457
info@t tipi.eus | www.t tipi.eus

ZOZKETAK:
631. ALEKO IRABAZLEAK

"Bortziriak uraren magaletik euskararen bidean" DVDa
Asunción Retegui | **IGANTZI**
2 SARRERA | Nafarroako Bertsolari Txapelketa
M^a Jose Iparragirre | **ETXALAR**
M^a Jesus Taberna | **IGANTZI**
KARTA JOLASA | Katxi porreta
Inma Danboriena | **BERA**

2 LIBURU | Ibaizabal
"Afrikako hitzak"
Jose A. Iruueta | **ELIZONDO**
Ana Zubieta | **BERA**
2 SARRERA BIKOITZ
Irrisarri land
Maite Lertxundi | **ELIZONDO**

2 LIBURU | Erein "Otsu-gizona"
Elena Mugiro | **IGANTZI**
"Mamua"
Pili Etxart | **ELIZONDO**

ttipi txartela

DESKONTUAK








1

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



2

2 LIBURU
Ttartalo argitaletxea
"Aurretik ondoaren" | "Onddoaren alegia"
www.ttartalo.eus



3

3 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
"Maitasun oso"
www.ibaizabal.com



4

2 LIBURU
Erein argitaletxea
"Dragoia" | "Ereingaren marrazkia"
www.erein.eus



5

2 SARRERA BIKOITZ
Irrisarri Land
www.irrisarriand.com



6

AKATSA SISTEMAN CDa
Lurra
<http://5gora.eus>



